# GALTZAGORRI

Lau gertalditako antzerkia

## Lehen gertaldia

Joka lekua - Tiiranberroeneko barne nagusia. Hiru borta: batetarik kanporat joaiten da. Murruaren kontra, harmairu haundi bat eta untzitegi bat; huntan ageri dira plat, botoila, baso eta bertze. Murruan, dilindan, miraila bat eta harma bat. Mahi bat, alki bat, fotila bat eta kadera. Murruan dilindan, potreta haundi bat, Sinda eta Kiriko, espos jauntzitan.

### I

**SINDA:** *(Kadera batean jarria, galtxorrotxetan prisaka ari da. Omore tzarrean dela ageri du. Senda, haren alaba, harmairu idekiaren aintzinean da. Besta berrietako arropen plegatzen ari da. Bi emazteak ixilik daude)*

**KIRIKO:** *(sartuz)* Emazteak ixilik? Alo! Badugu onik! *(denak ixilik ixtaño bat - Senda-ri)* Ihauteriako arroparen hautatzen ari zira?

**SENDA:** Garizuma bururatua da. Besta berri-ri buruz apailatzeko tenorea jina da, aita. Mutiko horiek, beren izerdi-errekekin, arropa guziak andeatzen dituzte. Nik uste, arnoa edan-eta ura ateratzen zaioten.

**KIRIKO:** *(Sinda-ri)* Galtxorrotx lana, emaztearen miraila. Orratzak zalu dabiltzalarik, ortzia hurbil.

**SINDA:** Eta zu, dudarik gabe, ortzitik zaintzeko paisela?Landan ezartzeko mamuka ba, segurrago.

**SENDA:** Aitaren alaba balinbaniz, noizbait senar ere izana ditaike...

**SINDA:** Lan hortako, nor nahi on da...

**KIRIKO:** *(xixtuz, zolapeari so, deus ez du erraiten)*

**SENDA:** Gizozonek xixtu, emazteeri errepostu emaiteko ez direlarik gai...

**KIRIKO:** Xixtuak berekin deramatza pentsamendu tzarrak. Gizonak, ezkontzean, emazte bate karga pisua hartzen du. Hortakotz, hobe da xixtuz hartzea, ezenetz, eta elhe txarka...

**SENDA:** Emaztendako, gaixo aita, maitatzea da manatzea. Nik segurik gostuko mutiko gazte bat ikusi orduko, badakizu zer dutan gogoam? «San Antonio! zer plazerrarekin mana nezaken mutikoño hori!» Alo, zu holako gizon izpiritu argia, ez dut pentsatzen, ama emaztetzat hartu zinuelarik, uste zinuela galtzak zuk erabiltzea?

**SINDA:** Zure aitak, bere biziko xantza ukan du enekin ezkontzea...

**KIRIKO:** Ba, herriko perla aberatsena zira: ez dakit zonbat batasunen eta konfrerien buruzagi; herriko axurant; besta-berrietako arropen jabe... Nor da, konfirmazionetan, kartierreko haur guzien amatxi? Nork egiten dio ongi etorri, deputatuari, jiten delarik? Zuk... Nork du, bertze guziek baino lehen, musu emaiten apezpikuaren erraztunari? Zuk... Fabiolak uste zuelarik seme bat ukaitea, nor izan da harekin amaño baten bila? Zu... Nork eman du, museko xapelgoaren irabazleri beren kopa? Zuk... Zuk... beti zuk... Hainbertze «zu» emazte bakar batean bilduak; eta ni, gaixoa, «ni» bakar bateko gizona...

**SINDA:** Eta nor da primantzaz etxe hunen jabe? NI!

**SENDA:** Horrekin ezkondu zinelarik, zen bezala maitatu zinuen?

**SINDA:** Gaztetasuna, haurra, gaztetasuna! Begiak zabal eta burua hotz egoiteko orde, bihotza sutan eta begiak itsu egin nuen nere hautua.

**SENDA:** Gizon ederra zen ala hala-hulakoa?

**SINDA:** Jainkoaren-xakurra, altxalili bilakatzen da. Zure aita, bertzela jokatu da: gaztean altxalili, eta orai, mamutx.

**KIRIKO:** Maitexko ninduzun orduan! Beti ene besoari lotua, norbaitek ebats beldur bezala. Elizan ere, zure lekutik, beti eni so galerietarat. Ez ditzagun aipa apairuak! Maitea, arroltze moletaño bat, jan ote zinezake gogotik? Ene bihotza, kruxpeta batzu egin dauzkitzut, afotik ezin utziak! Eta ofean! Buhurdi gurienak, enetzat! Goizetan ez goizegi jeiki behar: «nere kutuntxu» egizu oraino lo! Eta gero oferat askaria: xokoleta, bixkotxekin. Horiek hola, jeloskorra, bainan jeloskorra! Je-e-sus! Adixkide bat jiten zena zure ikusterat? Kiriko, kurri hemendik behi deizterat!

**SINDA:** Ez da harritzeko hoin alferra atera bazira...

**KIRIKO:** Ni alferra! Uste duzu zure sofritzea ez dutala aski lan? Ahuntzaren adarra baino jite bihurriagoa baituzu. Herri guziarekin aharran ari zira: Erretorarekin, ez baitauzu elizako kadera Bihotz-sakratuaren kaperan utzi nahi. Errientarekin, haren emazteak galtzak ibiltzen dituelakotz eta elizan ez baita ibiltzen. Guardarekin — Jainkoak barka dezauzula— Apolinairen alabaren papuan eskua sartu-eta, pimentoz untzi bat hatxeman duelakoan. Auzapezarekin, erran duelakotz Napoleon Makean sortua dela. Zure nahaskeriak ezin hatxean ezarriz, hor nabila batetik bertzerat! Eta orain alferra nizala! Ni, alferra! Gerlako minixtro behar nuke izan, gerlako minixtro!

**SINDA:** Ba, xarnafera arratsean, supanpa tiratzeko! Paso... nahi baduzu... Bainan, ene alabaren ezkontzean, ez duzu sudurrik sartuko!

**KIRIKO:** Izpiritu sainduaren bertutez egina duzu dudarik gabe, zure alaba? Ala zer?

**SINDA:** Kasik... Ezkontzako lahtegian, gizona lanean ari da minota bat. Emaztea, aldiz, minota bat eta... bederatzi hilabete gehiago! Zuendako buhurdi guriak eta xokoleta biskotxekin. Guretako, biziko kirestasunak.

**KIRIKO:** Ene alabaren aita naiz. Ene izena ekartzen du. Iduritzen zaut badutala horren gainean nik ere ikusteko...

**SINDA:** Zure izena? Hain segur ez... Sendak ekarriko du etxe hunen izena. Eta hau, enea da. Senda, Txiranberrotarra izanen da, eta haren semea ere bai. Eskual Herrian, Txirariberrotarrak izanen dira, azken judizioan, Jesu Kristo bizien eta hilen jujatzerat jin artio. Orduan, ondar Txiranberrotarra etxe huntarik aterako da, zerurat igaiteko.

**KIRIKO:** Ez dut uste. Ordukotz, Jondoni Petrik zu gozatua izanen zitu. Eta lepotik eta gorago asea izanen baita Txiranberrotarrez. Ni beldur borta sudurrerat hetsiko duela zure ondotik haren aintzinerat agertuko diren Txiranberrotar guzieri.

**SINDA:** Anartean, Txiranberrotarren prima bizi baita, harek hautatuko du bere alabaren senar-gaia.

**KIRIKO:** Ba. Porrusaldeneko dukea. Andiputz, nor gira gu-eneko prima, zu. Beti andi-mandikeria gogoan. Nik ezagutu zitudalarik, Gumersinda zinuen izena. Hau sortu delarik *(alaba erakutsiz)* Rosenda eman diozu izena. Nik ez dakik nungo dukesak erranik Gumersinda eta Rosenda izen arruntak zirela, orai baditugu etxean, Sinda eta Senda!

**SINDA:** Zer uste duzu mendi gaineko kaiolan bizi den edezoin biligarro enetzat on izanen dela?

**KIRIKO:** Senda ala zu zirezte ezkondu beharrak? Harek zer duen gogoan behar litaike lehenik jakin...

**SENDA:** Zuk, aita, ez baitzira Txiranberrotarra, ixilik egoiteko dretxoa baizik ez duzu. Eta zuk, ama... gauza bera...! Zuretzat ez baduzu, diozunaz, senar on bat hautatu, nola nahi duzu alabarendako hobeago bat hatxeman? Hartakotz, hobe dut nihaurek hautatzea, altxalili bilakatuko den jainko-xakurra. Gauza nekea, badakit. Adimenduak manatzen dautalarik «Hauta zan baño» bihotzak berriz dio «Ez presa, egon haiduru»

**SINDA:** Zuk uste duzu gizon-gaiaten beha egon behar dela, begiak xuriturik, treina baten hartzera doana bezala. Ez da hala, gaixoa, ez da hala! Batere ez da hala, ene haurra! Behar da kurri doan treinaren barnerat jauzian sartu, beha dagoztenek ez dezaten zure lekua har.

**KIRIKO:** Bizkar hezurraren hausteko molderik hoberena. Ezteiak jateko orde, joanen gira enterramendurat.

**SENDA:** *(mahain gainean ezarriak ditu makilarien, sapurren, eta bertzen arropak)* Nahi banu, iduritzen zaut hotarik edozein ukan nezakela *(Makilariaren xapela hartuz)* Bisai pollita,, errege baten mantenia, begia triste eta olerkiz betea, bainan... *(hartuz zapurraren burukoa)* Ez da itsusia, gustagarria da, elhe ederrak ezpainetan, bainan... *(zuizaren gapelua hartuz)* Mutiko ederra, pantorriloa azkar,ogi benedikatua bezain oneko irriño bat, bainan... *(Hartuz kapitainaren kasketa)* Mutil-dantzetan parerik ez du, denetan ederrena da, herabe-herabea. Nahiz ez, zineman ez den hala... baina... *(Oilarraren burukoa hartuz)* Huntaz, deus ez dut erranen, sobera bainan bailitake...

**KIRIKO:** Aukeraren maukera, azkenean okerra.

**SINDA:** Zapur, oilar, makilari... Bertzerik ez duzu ikusten bada zure hautuaren egiteko? Horiek denak azken setentzian hartzekoaak dira!

**SENDA:** Bertze norbait bada. Bainan ez dakit nor den, nun ikusia dutan behin, ez eta ere nun bizi dem. Urrungoa izan behar da. Zonbait aldiz, gogoan dut haren begitartea; bainan gero, galtzen dut burutik. Ametsetan, hobeki ikusten dut. Bainan ene bihotza segur da, egun batez, nunbaitik agertuko dela. Hartakotz, haren beha nago, kantua ezpainetan:

Ezta mundian barberik bat baizik,
Ene gaitza zertarik den ezagutzen dianik
Eta hura berantetsirik
Baniagozu gaxua,tristerik...

*(ateratzen da)*

**II**

**SINDA:** Ikusten duzu? Zure gatik, gure alabak burua galtzen ari du. Amodioa sobera baitezpadakoa da haurren eskuetan uzteko.

**KIRIKO:** Amodiotan giren guziek, burua galtzen dute puxka bat. Ez da ezkontzea bezalakorik bere baitaratzeko...

**SINDA:** Ezagutzen ez den norbaiten emazte-gaia. Halo, ez du horrek kanorerik!

**KIRIKO:** Emaztekia, bertzerik ez da gertatzen! Uste duzu badela emazte bat, hartzen duen senarra ezagutzen duenik?

**SINDA:** Egia. Nik segurik ez. Bertzenaz, ez bainintzan zurekin ezkonduko.

**KIRIKO:** Nik berriz, jakinean hartu zitut; nahi bainuen, mundu huntan berean, purgatorioko denbora pasatu...

**SINDA:** Zaza bixta huntarik, burregoa...

**KIRIKO:** Burregoa izan baninz, aspaldi lepoa bihurtia izanen nauzun, ziren bezalako sorgin zaharra.

**SINDA:** Jainkoa! Zer bakea ukanen dutan begien bixtatik betikotx galduko zitudalarik! *(kantuz)*

Yazo al balitzate yazo al eztaña
Laster salduko neuke nik neure senarra

**III**

Sinda eta Blandina *(erretoraren iloba)*

**BLANDINA:** *(bortatik)* Hela! Sar ditaike, etxe huntan?
**SINDA:** Sar zitz, sar, Blandina.
**BLANDINA:** Mentatik heldu niz. Ekartzen dautzut manatua zinuen anixeta *(botoila zare batetarik ateraz, mahain gainean pausatzen du)* Ez zen «del Mono» hartarik. «Del toro» ekarri-dautzut. Bainan zaude gustian, Toro ala Mono, biek berdin bururat egiten dute.
**SINDA:** Milesker ainitz, Blandina.
**BLANDINA:** Hunarat heltzean, iduritu zaut bizi-bizia mintzo zineztela... Bada zerbait ontsa ez duanik?
**SINDA:** Gizon horiek, Blandina, gizon horiek. Ez duzu aski estimatzen ahal senarrik ez ukaitea!
**BLANDINA:** Errazu uste duzula. Jainkoak, senar bat emaiten ez duelarik oseba bat erretor emaiten du...
**SINDA:** *(hats beherapenka)* Hori ere hala da... Eta zer erretora. Ni ere, samurtua niz harekin, elizako kaderaren gatik.
**BLANDINA:** Bihotza eskuan du, bertzenaz. Bainan, zer nahi duzu, esnea bezala, artetan, hura ere minkortzen.
**SINDA:** Ba bainan, haren aztapar ukaldiek zarramaskatzen...
**BLANDINA:** Garizuma denboran, ifertzinaz itzulia izaiten da. Hauste egunetik harat, ezin hunkitua da.
**SINDA:** Zer gertatzen zako ba?
**BLANDINA:** Pipa uzten du, arnorik ez edaten apairuetan. Piperradan xingarrik ez du ikusi nahi. Eta badakizu: gizon barura, erdi debrua.
**SINDA:** Uste duzu horiek denak penitentziaz egiten dituela?
**BLANDINA:** Bere ustez, ba. Bainan, ni beldur penitentzia ez ote dutan nik egiten, ororen buru! Pipa hori, emaztekia, pipa hori! Haren faltaren kexua ezin bentzutuz hor dabila, zist-zaust, alde batetik bertzerat furia gorrian. Karakolen gisa apezek bere biltokia kofesategian baitute, brau badoa harat. Kasu, orduan, kofesatzera heldu. denari! Gatz-biperrekin ukaiten bide duke penitentzia egiteko.
**SINDA:** A! Gizon guziak elgar iduriak. Sotanak ere ez ditu ontzen!
**BLANDINA:** Gizonek, gaixo Sinda, aisetasun guziak behar dituzte bizian. Eta ahal bezala traba gutti, beren bidean.
**SINDA:** Gure hori segurik, akerraren adarra bezain bihurria ateraia da. Haurrean, erraiten ginuen: Ez dut ikusi, Akerreneko akerrak bezain adarrak okerrak dituen aker adar okerrik.
**BLANDINA:** Bihurria, diozu? Bainan, ez du edaten bederen?
**SINDA:** Debruak berea behar du: hori ez. Arno xortarik ez du edaten.
**BLANDINA:** Ni ez niz batere fida arnorik edaten ez duen gizonari. Ez badu edaten, kasu! Badu zerbait aitortu nahi ez duenik. Gizonek on dute artetan trago bat sobera edatea. Gizonaren purga, arnoa. Orduan salatzen dute beren jaidura gordenen berri. Arnoa bezalako kofesorrik ez omen da nihun.
**SINDA:** Ori, gisa hortan, Kirikok bideduke debru zama nunbeit gorderik. Ezen, ura baizik ez du edaten!
**BLANDINA:** Ez du, dudarik gabe, zutaz bertze norbeit...?
**SINDA:** Pentsa, ori! Nork uste duzu soporta lezakela? Bertze norbait balu bederen! Ez omen da, orduan, emaztentzat, senar gixakoagorik! Errana den bezala: Buztana lastozkoa duena, suaren beldur.
**BLANDINA:** Nahi duzia egia jakin, Sinda! Senar-emazte batzu gasailan ari direlarik, ardurenean gizonak du arrazoin. Gizonak ez badira zentzuz beteak, nola nahi duzu heieri gaina har dezagun? Guk, oihuka dugu, oihuka, auzia irabazten. Ez arrazoin dugulakotz, ez.
**SINDA:** Kirlkok arrazoia? Ez dakizu ori zer erran dautan partitzean!

**BLANDINA:** Buruan pasatu guziak. Juramentu-eskarnioka ariko dira eta gero, bee eta bee, bildots batzu bezala gure gibeletik.
**SINDA:** Kiriko bildotxa! Holakorik, oraino! Otso bat, Blandina, otso bat. Horra zer den Kiriko. Debruetarat igorri nau!
**BLANDINA:** Horrek zitia kexatzen? Bebrua ere gizon bat da; engoitik hezi duzu bihurriagorik...

## IV

Sinda, Blandina eta Galtzagorri

**GALTZAGORRI:** *(Galtza gorritan, negu palto haundi bat soinean, bortatik)* Egun on, andereak.
**SINDA:** Bai zuri ere, jauna.
**GALTZAGORRI:** Barkamendurekin, sartzen ahal niza?
**SINDA:** Aintzina, aintzina!
**GALTZAGORRI:** Hemengo etxekanderea, zuetarik ote da?
**SINDA:** Ba, ni naiz Txiranberroeneko etxekandrea. Andere hau berriz, herriko erretoraren iloba.
**GALTZAGORRI:** Ene errespetuak, andereak.
**SINDA eta BLANDINA:** Milesker, jauna.
**GALTZAGORRI:** Barkatuko duzue ene ausartzia, bainan, lanetan niz...
**SINDA:** Ene senarrak arta hartzen du, usaian, beharretan direnez. Bainan justu-justua ez da etxean.
**GALTZAGORRI:** Ez dut ez baitezpada haren ikuste beharrik...
**SINDA:** Nik egiten ahal badut zerbait zuretako...
**GALTZAGORRI:** Ba, bainan ez niz menturatzen erraiterat...
**BLANDINA:** Mintza zite deskantzuan. Ala, zer zitugu izitzen?
**SINDA:** Mintza zite, mintza gostuan. Gazte zira eta guk, gure adinean badugu zerbait ikusirik eta aditurik.
**BLANDINA:** Ez duzu nehor hil, bederen?
**GALTZAGORRI:** *(irriz)* Ez, ez. Egon gostuan *(buruari hazka)* Egun goizean jina niz Miarritzetik ene Alfa Romeo-an *(hek harrituak ikusirik)* ba, alo, ene beribilean. Pasean ibili naiz zuen kanpo ederretan. Sagardi xoragarri baten ondoan pasatzean...
**BLANDINA:** Txaparrobordako sagardia, segur ere. Alde hotako asto-sagar hoberenak han dira.
**GALTZAGORRI:** Betiere, Txaparrobordako sagar-ondoen adarrak bideraino heltzea baitira, jan dut lehenik sagar bat, gero bi, gero hiru, eta...
**SINDA:** Eta zer?
**GALTZAGORRI:** *(buruan hazka)* Txaparrobordako sagarrak, orai, ene tripan gulu-gulu fandangotan ari eta *(buruan hazka)*... konprenitzen nuzue?
**SINDA:** Nik segurik, pits ez dut konprenitzen.
**BLANDINA:** Baietz, halo *(Sindari beharrirat mintzo)*
**SINDA:** Horren erremedioa errexa da. Borta huntarik pasa zite eta behitegia hor berean duzu.
**GALTZAGORRI:** Borta huntarik?
**SINDA:** Ba. Bainan, kasu. Ez hurbil sobera ahatxeari. Norbait arrotz ikusi orduko, putarka hasten da.
**GALTZAGORRI:** Milesker *(ateratzen da)*

## V

Sinda eta Blandina

**BLANDINA:** Gaixo gizonak! Dena espantu eta lehenbiziko harrixkak behazto parazten ditu, burua galarazten. Orduan, hel egin behar emazteeri buruz.

**SINDA:** Zonbait aldiz, galtzak puxuluago zaiak baino...
**BLANDINA:** *(xutituz, dena zainetan)* Miarritzetik jina dela erran du?
**SINDA:** Eta beribilean, plazer baduzu...
**BLANDINA:** *(kopeta joz)* Horra! Badakit nor den! Ez zinuen.ahatik behitegirat igorri behar!
**SINDA:** *(kurios)* Nor debru ditake?
**BLANDINA:** Joanden igandean, kongregazioneko nexkak izan gira Miarritzen. Jan ondoan, plaian izan gira. Xurrupeko Rufina, badakizu Miarritzen sasoina egiten duen hura, gurekin zen. Harek ezagutzen ez duenik ez da. Galtza gorritan zabilan mutiko gazte bat erakutsiz, erran daut: «Ikusten dun mutiko hori galtzagorritan? Ez dakin nor den? Suprefetaren semea!»
**SINDA:** Zaude ixilik!
**BLANDINA:** Sinetsiko nuzu nahi baduzu. Behitegirat igorri duzun mutikoa, hura da.
**SINDA:** Nolaz dakizu hura dela?
**BLANDINA:** Burutik ezagutu baitut. Eta, hola hola bezti zen; atorra hori bera zuen soinean. Eta ez dabila nor nahi galtza gorritan.
**SINDA:** Segur zirea?
**BLANDINA:** Gezurtiaren fama baduta?
**SINDA:** Hori ez. Bainan guk, emaztek, zonbait aldiz egiarentzat gartzen baitugu ordia gure nahikeria...
**BLANDINA:** Ez balitz bekatu, zin egin nezake sainduen izenean!
**SINDA:** *(besoak altxatuz)* Jainko maitea! Zer xantza! Suprefetaren semea; Txiranberroenean!
**BLANDINA:** Ba, Txiranberroeneko behiekin! Haren aitak ikusten balu...

## VI

Sinda, Blandina, Kiriko

**KIRIKO:** *(sartuz)* Jakiten ahal duta nor den gure behitegian?
**SINDA:** Nor nahi duzu izan dadien? Suprefetaren semea!
**KIRIKO:** Suprefetaren semea, galtzak laxaturik? Gaineko kaxoolatik baduzu, ala zer?
**BLANDINA:** Baietz Kiriko. Suprefetaren semea dela!
**SINDA:** Laborantzako inginadorea da eta gure ahatxearen ikusterat jina da.
**KIRIKO:** Dassance ere laborantzako inginadorea da. Eta ez dut sekulan manera hortan ikusi.
**BLANDINA:** Txaparrobordako sagardian ere izana da sagarren jastatzen.
**KIRIKO:** He... ez dakit... Gatu horrek ba ote duen bertze buztanik. Debruak asmatu etzuena, emaztekiak egin zuen *(ateratzen da)*

## VII

Sinda, Blandina eta Galtzagorri

**SINDA:** *(taulierra kendua du. Mirailaren aintzinean bisaiaren artatzen ari da)* Hurbil-azu fotila, Blandina.
**BLANDINA:** *(foltila ekarriz)* Horra. Hola, ikusiko du guk ere badakigula jende haundien lerroan egoiten.
**SINDA:** *(Mahaina fotilaren ondorat tiratuz)* Mahaina, hemen. Zuk, Blandina ekar-zkitzu untzitegitik baso ederrenak. *(Botoila bat, buxuna kendu eta, mahain gainean ezartzen du)*
**BLANDINA:** *(basoak pausatuz)* Eta orai, banoa berriaren hedatzerat.
**SINDA:** Ez gaixoa. Etxe huntako berriak, nik bakarrik behar ditut barreatu.
**BLANDINA:** Behingoan. utz nezazu! Hain plazer nuke!
**SINDA:** Biak hementxet egonen gira, deus ez balitz bezala. Zuk, galden errepostua emanen duzu bakarrik. Eni galden egitea, egin behar direlarik.

**GALTZAGORRI:** *(sartuz)*
Bakea! bakearen gozoa
Ihes jina basherri xokora!
Bakea, musu bat ezartzen dut
Zure ezpain ixilen gainean!
Bakea, musu bat ezartzen dut
Zure marmolazko gorputzean!
Bakea, zure ofe eztian,
Utz nezazu, ari amentsetan!

**BLANDINA:** Behitegitik ateratzen, bertsutan! Holakorik oraino! *(Sindak ukundo kaska bat emaiten dako, ixil dadien)* Alo! Kontxo! Ez banuzu uzten hemendik joaiterat, ez niz ixilduko.

**SINDA:** *(Galtzagorriri)* Txauri, txauri. Jar zite hementxet *(jartzen da kadera batean)* Ez, ez, fotilean, otoi.

**BLANDINA:** *(ahapetik)* Bertze purdi-milikaria.

**GALTZAGORRI:** *(Sindari)* Milesker, anderea.

**SINDA:** Barkatu, otoi, jauna. Nik ez dakit nun nuen lourua, zu ahatxearen konpainiarat igortzeko! Halako mainu-toki xoragarria badugularik, etxean, zerbitzuak sahetsean. Ez dea hala, Blandina?

**BLANDINA:** Uste nuke. Marmola beltzez egina. Iduri baitu hobi bat.

**SINDA:** Txiranberroenean, ongi etorri egiten dugu deneri..

**BLANDINA:** *(apaletik)* Salbu senarrari.

**SINDA:** Mainu bat nahi duzia hartu?

**GALTZAGORRI:** Ez, ez, milesker.

**BLANDINA:** *(apaletik)* Gaizoa! Espantu erauntsi bat beharko dut ahatik baurutik beheiti hartu!

**SINDA:** Anixeta xorta bat bederen hartuko duzu *(zerbitzatuz)* Paris-etik ekar-arazia dut. Hatxemaiten ahal den hoberenetik. Prezioaz, nahiago dut ixilik egon...

**BLANDINA:** *(apaletik)* Mentako merkeena. Eta oraino, pagatzekoa.

**SINDA:** Etxekoak ontsa dituzia?

**GALTZAGORRI:** Biziki ontsa, milesker.

**SINDA:** Aita ere azkar?

**GALTZAGORRI:** Azkarrenean...

**SINDA:** Zure aitak ezagutzen nuke, hain segur. Herriko axurant niz...

**GALTZAGORRI:** Zaude ixilik!

**SINDA:** Erraiten dauzutan hezala. Jendek diote, omen, ene kargua ontsa betetzen dutala.

**GALTZAGORRI:** Herriko-etxe bateam, baditake zer nahi lan?

**BLANDINA:** Herri guziak huni emaiten dion baino aisa gehiago lan emaiten du hunek auzapezari...

**SINDA:** Auzapez-etako, herriko gizonik zozoena hautatu baduzue, nik behar dituda pekatu?

**GALTZAGORRI:** Ardurenean, auzapezak ez dira hautatuak beren adimenduaren gatik bainan bai beren pretentzionea gatik.

**BLANDINA:** Gureak, Koltxoin du izen-goitia. Badakizu zendako? Mozkorra etxerat biltzen delarik, emazteak zanpatzen baitu.

**GALTZAGORRI:** *(irriz)* Ez da, beraz zuhurtzia emaztegai keta herri huntarat jitea?

**SINDA:** Ezkont gaia zira?

**GALTZAGORRI:** Oraino segurik ba.

**SINDA:** Blandina, emazu otoi anixeta hortarik edaterat *(Galtzagorri-ri)* Ezkontzeko xedetan zira?

**GALTZAGORRI:** Xedea ez paita aski... Sobera herabea niz xedearen obratzeko.

**BLANDINA:** *(zerbitzatuz)* Herabea balinbazira, ez zira sekulan ezkonduko. Ezkontzeko, airekoetarik jauzi egiten dutenen gisa behar da plantatu. Bi begiak hetsirik, zauzt! jauzi egin, eta gero, idek paisola!

**GALTZAGORRI:** Oraiko neska gazteak ez dira batere lehengoen parekoak.

**BLANDINA:** Galtzak soinean dabiltzalakotz? Gure herrietan, galtzen ibiltzea ez da nausitasunaren seinalea, bainan ahuleziarena.
**SINDA:** Herri huntan segurik, bazinuke nun hauta. Gure etxetik haste...
**BLANDINA:** *(apaletik)* Ale! Alaba salgai, goazen merkaturat!
**GALTZAGORRI:** *(zerbait erakutsiz)* Hau atxeman dut behitegian.
**SINDA:** Orratz-untzi bat. Josteko orratzak horietan ezartzen ditugu.
**BLANDINA:** Galtzagorriak ere.
**GALTZAGORRI:** Galtzagorriak? Hola deitzen naute, galtza hok soinean ditudalarik.
**BLANDINA:** Ez dakizu zer diren galtzagorriak? Gure laguntzen dabiltzan debru ttipi batzu. Errana da orratz-untzi bakotxean lau badirela.
**SINDA:** Erran zahar ments batzu dira horiek.
**BLANDINA:** Ez, segur. Gatza uzkaltzen bada sukaldeam, heiek biltzen dute. Eta etxeko zakurrak ez du kukusorik, heiek hiltzen baitiozte.
**GALTZAGORRI:** Eskualdunek, ez dute sinesterik gaineko Jaungoikoan baizik, eta... bertze ttipiño batzuetan, hemen berean, debruarekin ados dabiltzan batzuetan...
**SINDA:** Orratz-untzi hori ene alabarema da. Baditu bertze hiru oraino, eta denak behar. Beti jos eta jos ari da. Ikusten bazinitu zer gauza xoragarriak eginak dituen ezkontzen deneko!
**GALTZAGORRI:** Haren ezagutza ez nuke egiten ahal?
**SINDA:** Ez da enea delakotz, bainan herrian ez du parerik. Gainerat, haur bakarra. Trakturretik telebixtaraino, etxe batean behar diren guziak ukanen ditu dotetzat. Hura hartuko duenak, ez du karrika eginen.
**BLANDINA:** Ez ahantz, dotzenan hamahirugarren, amaiarreba ere han izanen dela, dotean...
**GALTZAGORRI:** Noiz ikusten ahalko nuke zure alaba?
**SINDA:** Ez luke orai berandu behar. Jiten delarik, emozu zuhaurek orratz-untzia.
**BLANDINA:** *(apaletik)* Triste hori orratz-untzirat behar du preso bildu, galtzagorri bat bezala.
**SINDA:** Badakizu emaztekiak kuriosaren fama duela. Barkatuko dautazu ene ausartzia, bainan nahi naukezu zerbait galdegin.
**GALTZAGORRI:** Emaztearen kuriostasuna biziaren gatz-biperrak. Emazteak ez balira kuriosak —eta gezurtiak— mundu huntan enoa gintazke.Denbora pasagailu ainitz eskas ginuke.
**BLANDINA:** Ba. Gu ifernuko gai, gizonen abusagailu gezurrak erran sari, eta gizonak zerurat, emaztek enganatu dituztelakoan. Elizatik haste emazteak beherean, gizonak berriz gaineko mailean.
**GALTZAGORRI:** Gizon guti bil litaike, emazte gabeko zeru baterat...
**BLANDINA:** Eta gizonik gabeko ifernuan, debrua ez litaike bestan.
**GALTZAGORRI:** *(xutituz, kanporat abiatuz)* Badakit zer galdegin gogo dautazun.
**SINDA:** Zer dela?
**GALTZAGORRI:** Emaztegai keta jina nizan hunat.
**SINDA:** Eta?
**GALTZAGORRI:** Behar bada...
**BLANDINA:** Agian zerrana, ez adin engana.
**SINDA:** Baduzu norbait buruan?
**GALTZAGORRI:** *(bekainak goratuz, ez erran nahiz)* A!... hori...!
**SINDA:** Ez dugu jakiten ahal nor den? j
**GALTZAGORRI:** *(bortatik)* Hori, ene segeretua...
**SINDA:** *(Blandinari, apaletik)* Orai, joaiten ahal zira...
**BLANDINA:** Zer? Orai? Horren segeretua jakin gabe? Ez gaixoa, ez.
**SINDA:** Blandina, ez nezazula samur-araz...
**BLANDINA:** Oxtian, ez nuen joan behar berriaren hedatzerat. Orai berriz nahi duzu leku nadien horren segeretua aditu gabe?
**SINDA:** Zuri salatuko dut lehen-lehenik. Fedea baietz. Eta berria, zuk hedatzen ahalko duzu.
**BLANDINA:** Segur, he? *(Xutitzen da, xarea hartuz)* Gizonaren purga, edana. Eman anixeta

hortarik brauki. *(Sindak Galtzagorriren basoa betetzen du. Blandina badoa Galtzagorri-ri erranez)* Kasu egizu. Ezkontzaz galdegiteko, ez da oraino alarguntsa. Dibortza herrian ez da onartua. Bertzalde, kasu jaun erretoraren ximixteri...

## VIII

Sinda eta Galtzagorri

**SINDA:** Hoin gazterik segeretua golkoan?
**GALTZAGORRI:** *(Hurbilduz)* Gaztetasuna, amodioaren sasoina. Amodiorik sortzen ote da segeretua bat erroan gabe. Ezkongaiek maite dute elgarrekin leku gordenetan egoitea, elgarri segeretuan erraiteko ezkongai guziek segeretuan elgarri erraiten dituzten segeretuak.
**SINDA:** Gazten segeretuak, paregabeak dira. Zerbait berezi kausitzen diotet segeretu bat gordetzen duten gazteri.
**GALTZAGORRI:** Emaztek, arraintza berezi bat maite dute: amuaren puntan, ez dituzte segeretuak baizik biltzen. Eta arrainki mota hori, kittorik saltzen dute.
**SINDA:** Egun batez, serorek kofesatzeko podorea ukaiten badute, emazte guziak serora sartuko dira.
**GALTZAGORRI:** Gizon guti bilduko da ahatik kofesategirat, orduan...
**SINDA:** Ene afotik, segeretu gutti ateratzen da. Senarrari berari ez ditut salatzen.
**GALTZAGORRI:** Zureak, behar bada ez. Bainan auzokoenak?
**SINDA:** Emazten segeretuak, balio gutikoak, berehala airatuak. Bainan gizonen segeretuak, a, hek, ez dira berdinak. Hek dira hek egiazko segeretuak!
**GALTZAGORRI:** Biziki gustagarria zira...
**SINDA:** Ene alaba oraino gehiago... Bertze baso ttipi bat hartuko duzu? *(zerbitzatzen du)*
**GALTZAGORRI:** *(basoa altxatuz)* Zure alabaren osagarriari. *(edaten du)*
**SINDA:** Gazte maitagarria zira. Ontsa ikasia. Hots, hits batez erralteko, ahoxuria. Ederra, gainerat. Zu bezalako suhi bat laket nuke.
**GALTZAGORRI:** *(firurikatuz)* Hoinbertze konplimenduren sari, nahi duzu ene segeretua jakin?
**SINDA:** Nihaurentzat atxikitzekotan, ez du balio
**GALTZAGORRI:** Bon, bon. Beraz, ez dauzut erranen.
**SINDA:** Ez du balio hortako samurtzea. Errazu, errazu zure segeretua. Nihaurendako atxikiko dut.
**GALTZAGORRI:** Ezagutzen duzu Errekazulo?
**SINDA:** Harpea? Diote laminak han bizi direla. Ikusten ahal omen dira harpe sartzean urrezko orraze batzuekin orraztatzen.
**GALTZAGORRI:** Bono! Harpe haren zolan bada ur-zilo bat xoragarria, eta haren barnean... *(denetarat so egiten du nehor baden)*
**SINDA:** Ura?
**GALTZAGORRI:** Eta urean arrain batzu hain miresgarriak nun munduan guzian ez duten parerik.
**SINDA:** Egia?
**GALTZAGORRI:** Gorputza urrezko ezkataz estalia dute.
**SINDA:** Urrezkoak! Uste duzu?
**GALTZAGORRI:** Errekazulorat joaiten dena, inimini-sant aberats puxant bilakatzen ahal da.
**SINDA:** Zu, nitaz burlan ari zira!
**GALTZAGORRI:** Anderea! Otoi!
**SINDA:** Nahi nuzke ikusi, ori, urrezko arrainak!
**GALTZAGORRI:** Errez da. Oraintxet ari niz harat.
**SINDA:** Jiten ahal niz zurekin?
**GALTZAGORRI:** Nahi baduzu. Nehork sekula ikusi ez duena ikusiko duzu.

**SINDA:** *(xutituz)* Minota bat egoiten ahal zira ene beha? *(badoa apaletik erranez)* Hori ahatik sekula salatuko ez dutan segeretua dela! *(ateratzen da)*

**GALTZAGORRI:** *(kantuz)*:

Kattalin ttukuttun, Kattalin arina!
Zenbatna saltzen duzu dotzena xardina?
Hamabortz sos dotzena, prezio xuxena,
Erosten ez baduzu, zoazi aintzina!

**SINDA:** *(sartuz sego bat eta salabarda eskuan)* Hara ni prest.

**GALTZAGORRI:** Ageri duzu aiten-aitek balea arraintzariak zinituela...

**SINDA:** Goazen beraz.

**GALTZAGORRI:** Goazen *(badoatzi)*.

**IX**

Kiriko bakarrik

**KIRIKO:** *(sartzen da, zoko-moko guziak usainduz)* Jes!... Zer bitxikeria!... Sofre usaina... Ba, ba, sofre usaina, hemen. Zaharren erramak sinetsi behar badira, debruak bere pasa-lekuetan uzten duen usaima *(oihuka)* Sinda!... Sinda!... *(Nehork ez baitio erreposturik emaiten, jender buruz galdegiten du)* Zuetarik norbaitek ene emaztea ikusi ote du?

**SO-EGILE BAT:** Arrantzarat joana da!

**KIRIKO:** Ez dut sinestem. Arraintzan, ixilik ari behar da!

Oihala

## Bigarren gertaldia

Ulaliren ostatua. Zolan, untzitegi batean ageri botoila, baso, etc... Mahainak, bankoak, kaderak. Borta bat, kanpora doana. Bertze bat, etxe barnerat doana.

**I**

*Antikristo, alguazil jauntzian,*
*su-hiltzeko kasketa huruan,*
*papua medailaz estalia,*
*kadera batean lo dago.*

**GILEN:** *(botoila basoak bere aintzinean, atabala joiten ari da eriekin mahain gainean. Ulali ostalertsa kontuarrian da)*

**ULALI:** Jaun meraren eskuak, tarranpatan, tarranpatan, atabala joiten... Zer ote du jaun merak buru gibelean?

**GILEN:** Ene burian, Ulali, gauza guti sartzen da.Bainan sartzen diren bakar hek, hor dabiltza firuri-firuri, ferietako zaldi bira-birak iduri. Pentsaketan artzeko podorea, ez zen gizoner eman behar, bainan alimaler.

**ULALI:** *(alguazila erakutsiz)*-Hortxeko horren buruan ez bide da atabala tarrapata haundirik. Beha-zu zer lorian lo dagon. Harri nindaike ez balu nexkatxa sango-sahar eder zonbait bere amentsetan.

**GILEN:** Ez duzu ontsa ezagutzen. Ni beldur, segurrago, zikiro azpiki on bat duela gogoan.

**ULALI:** Gizon heretiko bihurririk balinbada bat, hori hala da. Antikristo bere izena ez du segur

ebatsia. Nik ez dakit nola eman diozun herri-zaingo kargua. Apez arropa bat ikusi orduko, alditxartu behar duela iduri du.

**GILEN:** Ori, izkiriatzea ez baita nik pentsatia, horrek xarmanki egiten du ene lana. Ene mintzaldiak horrek apailatzen ditu. Horrek daut ikasia nola mintza, dena ele eta jestu deusezen erraiteko. Gisa hortan dugu, guk, auzapezek, denen gostua egiten, gure burua hastiarazi gabe.

**ULALI:** Nunbaiteko Martzellesa, alabainan...

**GILEN:** Ba. Eta gainerat, su-hiltzale famatua.

**ULALI:** Aprendizgoak ontsa egiten ahal ditu. Galtzagorriren paderan erreko delarik, baliatuko zako... Apezen kontra horrek ateratzen dituenak, ez da permis!

**GILEN:** Apezen erranetan sinestea eta apezetan sinestea, bida dira. Jainkoa baitan sinesteko, ez da apezetan sineste beharrik.

**ULALI:** Ori, so egizu. Ezagutu dut, bai baino gehiago, lehenik apezetan sinetsi duena, eta gero, Jainkoa maitatu.

**GILEN:** Antikristo ez da gizon makurra. Pramazona, apezen kontrakoa eta nahi duzuna. Bainan uli ez deus bat. Marzellesak, ixilik daudelarik bezik ez ditaizke sinets.

**ULALI:** Nahi duzuna, bainan holakoak ez dira ontsa ikusiak. Eskual Herrian, erlijioneari atxlkiak gira.

**GILEN:** Mendiak eder dira axalez. Nork daki zer daukaten sabelean?

**ULALI:** Erlijioneko gauzetan ere, botikarioaren etxean bezala da. Erremedio guziak onak dira. Bainan zonbaitzuek, erremedioak hartzen pozoindatzeko. Bakotxak bere gisarat hartzen Jainkoaren nahiak eta bakan harek nahi luken gidarat.

**GILEN:** Ene axurantaz orroitarazten nuzu; arrosarioak eskuan eta debrua golkoan.

**ULALI:** Sinda? Otoitz baino manu gehiago igortzen du saindueri buruz...

**GILEN:** Paterrean erraiten omen du: egin bedi ene nahia, ene etxean eta auzoan ere.

**ULALI:** Eta zu? Eskuintiar ala eskertiarrretarik zira?

**GILEN:** Ni? Ez ezker eta ez eskoin. Gu, eskualdunak, erditiarrak gira. Burua, estomaka, hots, gorputzeko partikune baliosen guziak ez dituguia erdian?

**ULALI:** A,Gilen! Biar hilen, etzi ehortziren, etzidamu ahantziren!

**GILEN:** Ba, Ulali, Doministikun, kirieleison
Lapiko batean zortzi gizon.

## II

Aintzinekoak eta Martzelino

Kanpoko borta ideki da. Martzelino hor da. Mutiko gazte bat, ezazolki beztitua. Klerona batean «Pipa hartu-ta» airea hasten du.

**ANTIKRISTO:** *(jauzian iratzarturik, xutitzen da eta garde-à-vous jartzen)* Zure zerbitzari, jaun mera!

**ULALI:** *(irriz)* Zer uste zinuen, azken judizioko adar-turruta zela?

**ANTIKRISTO:** *(Marzellako tonuan, eskuaraz mintzo)* Jende xehearen adarturrutak dira bakarrik zeruraino heltzen. Goseak daudenen adarturrutek dute oihuka ogia galdegiten. Herrestan dabiltzanen adar-turrutek dute oihuka sos puxka bat beren sakela hutsetarat galdegiten. Zangopilatuak direnen adar-turrutek dute orroaz gizonaren azkatasuna galdegiten. Jazartzearen adar-turrutek dute...

**GILEN:** *(oihuka)* Xo eta xo!... Lo hizalarik bederen, hire gorrikeriekin ez dautak kalterik egiten.

**ANTIKRISTO:** Zure zerbitzari, jaun mera *(Jartzen da, kasketa begien gainerat ezartzen du eta lokartzen da)*

**MARTZELINO:** Kasu, jaun mera! Gorriñoak behar dituzu bildu zure segeretarioarekin!

**GILEN:** Hik segurik bahuke gizontasun puxka baten biltzeko beharra. Hizan bezalako gaizki

ikasia. Hor ikusten duk hola, tutaka, ostatu baten barnean?

**MARTZELINO:** Klikaren ikas-aldia ginuen. Batzuek, kleronetan ufatzen dute. Bertze batzuek, botoiletan. That is the question...

**GILEN:** *(samurtuz)* Kasu emak gero hire zirikadekin. Aditzen duk? Kanporat agertzea, arropa gisa horiekin, ez hiz ahalge? Kontseiluko bat, manera hortan! Hire kargua ontsa ohoratzen duk, to!

**ULALI:** Urte berri naiz, urte zar
Martzelino beti galtza zar.

**MARTZELINO:** Ba, eta Martzelinok, bere galtza zaharrekin, zuek baino boza gehiago bildu ondar bozetan.

**GILEN:** Puh! Emazten bozak! Alabainan, mutiko ederra hiz. Ulalik ere...

**ULALI:** Ulalik, deneri edaterat emaiten du, eta bere boza, nehori ez.

**MARTZELINO:** *(Gileni)* Nor da etxe batean jende beharrena? Jaterat emaiten duena, naski... Nork emaiten dauzuete jaterat? Zuen emaztek, dudarik gabe? Bon. Beraz, herrian norbait direnek eman dautate eni beren boza.

**GILEN:** Norbait hek, zer debru presenta egin dautaten eni! Hi, eta hire kidekoak —axuranta barne— kontseiluan sartuz geroz, ene lixtakoak oiloak zorriekin bezain kexu dituk. Ez diat gehiago herria gobernatzen ahal.

**MARTZELINO:** Beharrik hor gira. Gidatzen ikasi gabe otoa eskuetan hartzen dutenetarik begiratzen dugu herria.

**ULALI:** Bon, aski gasaila. Zer hartzen duzu, Martzelino?

**MARTZELINO:** Asperges me, Ulali, tomate jus batekin.

**GILEN:** Tomate jusa edanez nahi dituzue zuek bazterrak erraz-gora ezarri.

**MARTZELINO:** Bakotxak bere gostu. Zuk, komunixtak bezain gorria egina duzu sudurra, mahats jusa edanaren bortxaz.

**ULALI:** Berriz haste? Hemendik aintzina ur-benedikatua emanen dauzuet edaterat, ur benedikatua. Herriko-etxean ariko zirezte gasailan eta ez hemen. Hemen, nik manatzen dut. Zirezten bezalako haurrak zuek! Badakiztea zer iduri duzuen? Limonada! Idekitzen delarik iduri irakitzen ari eta jastatzearekin, kilika txar bat doi-doia zintzurrean. Gauza seriosez mintzatzen hasi orduko, bota gasailari. Haurrak bezala behar zirezte abusatu, gostu onean ikustekotz.

**MARTZELINO:** Jaun mera, behar dugu, Ulalirekin, ingurutxo bat eman...

**GILEN:** Auzapez bat jostetan?... Ez balinba! Kargudunek, mentskeriak ere serioski behar dituzte egin.

**ULALI:** Auzapezak, bertze gizonen iduriak dira: beren burua norbaitendako hartzen duten haur haundi batzu. Orai, ikusi behar dugu nor den gutarik jakintsunena. Galde bat eginen dauzuet; errepostu xuxena emaiten duenak irabaziko du auzia.

**MARTZELINO:** Ontsa da Ulali.. Telebixtan bezala. Gizonak prest dira.

**ULALI:** Bon, hasten niz.

**MARTZELINO:** Bon. Haste. *(klerona joiten du)*

**ANTIKRISTO:** *(jauzian iratzartuz, xut zuta jarriz)* Hemen, hemen, jaun mera! Zure zerbitzuko! Nun da sua, nun da?

**MARTZELINO:** Baratxe, baratxe, giza gaizoa. Oraino segurik, surik ez da.

**ANTIKRISTO:** Hamabortz medaila baditut su-hiltzen irabaziak. Beti bertzen zerbitzuko. Sua nun, ni han. Ni nun, han sua itzal.

**ULALI:** Ago ixilik, kaskoin afo haundia. Hemen Baxe-Nabarren gituk gero.

**ANTIKRISTO:** Erresuma huntako lege-nausiak manatzen du jende bakotxak izan dezan mintzatzeko dretxoa.

**ULALI:** Ulaliren ostatuan, lege-nausia, ni nuk! Jar-hadi hementxet hire nagusiaren ondoan. Hire lekuan jartzen bahiz, berriz ere lokartuko baihaiz.

**ANTIKRISTO:** *(meraren ondoan jarriz)* Emazte bati obeditzea, bihotzaren goxatzea... Hara... Eta orai, zer nahi duzu egin dezadan, Ulali?

**ULALI:** Ixilik egoitea ahal baduk, azkar edatea, eta ene galdearen errepostua emaitea.

**GILEN:** Hasi gogo duzia ala ez?
**ULALI:** Zuk papaita, nik papaita. Ipurdiarekin zangorik ez; gorputzarekin besorik ez; lepoarekin bururik ez. Zer da?
*(Hiru gizonak goiti so, bila)*
**ULALI:** Alta, ez da neke hatxemaitea... Barne huntan ez da eskasik.
**GILEN:** Gizonak?
**ULALI:** Buru gabeko gizon asko bada hemen, bainan zango-beso gabekorik ez dut ikusten *(Antikristo edaterat emaiten ari da)* Zuetarik batek eskutraka badu.
**ANTIKRISTO:** *(eskuari so)* Eriak?
**ULALI:** Botoila, gizon herbaila, botoila!
**MARTZELINO:** Tantoa zure, Ulali.
**ANTIKRISTO:** *(medailak joz)* Agurtzen dugu emaztekiaren nausitasuna.
**GILEN:** Orai, eni. Hau zuretzat, Ulali.
**ULALI:** Hea...
**GILEN:** Emaztekiak solas gutienik egiten duen hilabetea, zoin da?
**ANTIKRISTO:** Eskual Herrian hilabete hori ez da ezagutua.
**MARTZELINO:** Zoin hilabete da laburrena?
**ULALI:** Otsaila!
**GILEN:** Tira bigarren ttanttoa!
**ANTIKRISTO:** *(medailak joz)* Agurtzen du emaztekiaren nausitasuna!
**MARTZELINO:** Oraikoaren ere, emaztakiak bentzutu jaun mera...
**GILEN:** Ba, bainan halere, ni beti auzapez. Eta zuetaz irri-trufa ederrik egiten...
**MARTZELINO:** Astoa, osinean, irriz, irriz, itotzen da.
**ANTIKRISTO:** *(xutituz)* Jaun mera, zure ohoreari hunkitzen duena, preso emaiten dut.
**GILEN:** *(paltotik lotuz)* Hi, jar-hadi hemen. Ene aferen xuritzeko, aski haundi nuk. Ez diat nehoren beharrik.*(Martzzelino buruz joanki)* Ene papaitaren errepostua emaiten baduk, hire pagatzen diat.
**MARTZELINO:** Ontsa da...
**ULALI:** Gizonen debrukeria bertzena!... Jostetan ere, gerla bidea behar nunbaitik!... A! Emazten eskuetan balira munduko giderak!...
**GILEN:** *(bapoki)* Zer dela pintx, itsasoan edan eta bortian pix egin?
**ANTIKRISTO:** Hori egiten duena, preso sartzen dut!
**MARTZELINO:** *(pentsaketa)* Alimalek itsas ura ez edan nahi... arrainak berri mendirat ezin igan... Xoriak berriz...
**GILEN:** Eutxi erraiten ahal duk; ez hiz aski ernea errepostuaren hatxemaiteko.
**MARTZELINO:** *(beti bila)* Hegalik gabe, zoin xori dabila zeruan?
**GILEN:** Ez daiat hori galdegiten, bainan ene papaitaren errepostua.
**MARTZELINO:** Bi galdek, errepostu bera dute goibela!
**GILEN:** *(samurturik mahian joka)* Arraioa pika buztana! Hik hatxeman!
**MARTZELINO:** *(Ulaliri)* Atzo, eguntegian irakurtua nuen. Uste du berak asmatua duela...
**GILEN:** Hea hik zer aterako dukan orai?
**MARTZELINO:** Arranoa da, jeneral esproinekin; ez da besta berrietako suisa, bainan xapel-okerra du buruan; ez da beso motza, bainan eskua dauka papuan.
**ANTIKRISTO:** *(xutiturik, Napoleon-en sinoak egiten ditu Gileni buruz keinuka)*
**GILEN:** Nor nahi duk izan dadien? Napoleon!
**MARTZELINO:** Ez jauna. Ez da Napoleon, bainan Makeako Ganix.
**GILEN:** *(koleran xutiturik, Martzelino hartzen du palto lepotik)* Trufaren gainerat musika! Badiat aski, gero! Mapoleon eta Ganix eginen daiat nik! Horiek denak, Sinda saltsurdin haren nahaskeriak dituk.
**MARTZELINO:** *(Gilenen eskuak kenduz)* Utz ene maripuliz lepoa geldirik. Horrek ez du deusetan hobenik.
**ANTIKRISTO:** Martzelino, jaun merari errespetua zor diozu!
**MARTZELINO:** Zure jaun mera erosten banu duen prezioan eta saltzen berak uste duenean,

aberats puxant bilaka nindaike.
**GILEN:** Arranoendako dauzkatzue zuen buruak eta ez zirezte uli batzu baizik.
**MARTZELINO:** Zu berriz, apo-harmatu bat zira, lau-hatzka etxean sartzen zirelarik, mozkorturik.
**ULALI:** *(baso xukatzen)* Sakotik lorea, erreferatik lorea...
**GILEN:** Gaizki ikasi tzarra, hi!
**MARTZELINO:** Santsusia, zu!
**GILEN:** Ago gostian, pagatuko dituk denak...
**MARTZELINO:** Mementoko, paga zazu nik edana. Eta gero, zoazila debraetarat ehun mila pindarrez inguraturik *(badoa klerona joz)*
**GILEN:** *(koleran)* A baia! Debruak ereman nezala!
**ULALI:** *(irriz)* Ez ahal zitu horrek izitzen! Debruak nahiago ditu auzapezak mundu huntan utzi, ostalerren hasti-arazteko *(ateratzen da)*

## III

Gilen eta Antikristo

*(Gilen, furia gorrian, harat-hunat dabila)*

**ANTIKRISTO:** Lapurtarrak gu iduriak dira, frango emeak. Bainan napartar horiek, basa ihiziak dira, basa ihiziak!
**GILEN:** Kasu emak zer diokan. Ni ere napartarra nuk gero...
**ANTIKRISTO:** Bono maitea... Beraz, zu ere, basa-ihizietarik...
**GILEN:** Hi ere, ene kontra hiza, orai?
**ANTIKRISTO:** Eta zuen izenak, berriz: Agerreberri, Iturrigorri, Barratarretxea, Karrikirriberria, eta ez dakit nik zer. Iduri du afoa katxetez beterik mintzo zireztela.
**GILEN:** *(gelditzen da)* Izikiria zak...
**ANTIKRISTO:** Zer?
**GILEN:** Har-zik panerra eta luma, eta izkiria zak.
**GILEN:** Suprefetari.
**ANTIKRISTO:** *(izkiriatuz)* Jaun suprefeta, tilet...
**GILEN:** Zer tilet! Ez daiat nik tilet izkiriatzeko erran hiri.
**ANTIKRISTO:** Bi hitzen berexteko ezartzen den seinale bat da, jauna, tileta.
**GILEN:** Bon. Ezar-ak beraz tileta... Jaun suprefeta, zonbait denbora hautan, ene axuranta, Txiranberroeneko anderea, eta kontseiluko bat, Urrikarrietaerrekotxipiko Martzelino...
**ANTIKRISTO:** *(izkiriatuz)* Urri-karri-eta-erreko-txipiko... Gaixo kaxkoin zintzurrak! Suprefeta hil gogorra eroriko da hori ezin erranez.
**GILEN:** Ene alderat gaizki dabiltza.
**ANTIKRISTO:** Eskarnioa hunat, trufa harat, ene karguari zor zaion errespetua zangopilatua dabilate.
**GILEN:** Ez dut batere gaizki, to, hori.
**ANTIKRISTO:** Heien etsenplu tzarrak ari du herri guzia nahasten...
**GILEN:** To, biziki ontsa duk hola. Eta gero, ezar-ak...

## IV

Kiriko sartzen da kanpoko bortatik

**KIRIKO:** To, hor hiza, Gilen. Hire bila nabilak zokoz-zoko. Berri haundi bat badiat hiretako.
**GILEN:** *(kexu)* Berri txar bat?
**KIRIKO:** Suprefetaran semea herrian diagu.
**GILEN:** Errekontxo! Zinez mintzo hiza?

**KIRIKO:** Txiranberoenean izan duk, eta orai, ez dakiat norat pasatua den.
**GILEN:** *(Antikristori)* Hail berehala, eta bandera ezar-ak herriko-etxe leioan.
**ANTIKRISTO:** Zoin badera? Eskualduna?
**GILEN:** Badakit arras ontsa hura ez dela ateratzen Labeguerie jiten delarik baizik. Bertzea, bertzea!
**ANTIKRISTO:** Frantsesa?
**GILEN:** Zer ba? Rusoa, behar bada?
**ANTIKRISTO:** Hura ere, zuk uste baino lehenago behar izanen duzu. Uztaritzeko serorer manatzen ahal dugu orai danik.

## V

Gilen, Kiriko, Ulali

**GILEN:** Justu-justia, bi lerroren izkiriatzen ari nindukan haren aitari.
**KIRIKO:** Noren aitari?
**GILEN:** Ta! Suprefetaren semearen aitari...
**KIRIKO:** Hik, baduk zerbait ontsa ez duanik. Gilen, kasu emak; ez dut buruxorokeria izkiriatzen artzeko tenorea. Utz-zak hasarrea eztitzerat. Hire hasarrea airatua izanen duk, eta hire izkirioak berriz betiko egonen. Badakit arras ontsa, gainerat, Suprefetak ez dituela maite gizon pottoka iduri putarlariak, bainan mera maltso maltsoak.
**GILEN:** Baduk kexatzekoa ere, gero! Ez dakit Martzelino zirtzil horrek zer erran dautan?
**KIRIKO:** Zer, gaizoa, zer? Gaztek mihia zalu die, mutikoa, bainan jitez ez dituk gaiztoak.
**GILEN:** Errak uste dukala! Hiri erran balauk «debruak ereman zaitzala» zer egin hezake?
**KIRIKO:** Ha! ha! ha! Hori duka? Gauza bera erran diat goizean emazteari. Badakika zer den: guhaur ez girelarik zerbaiten egiterat menturatzen debrua galdegiten diagu lagun.
**GILEN:** Kiriko, nik ez diat maite debruarekin jostatzea!
**KIRIKO:** Debrua debru duk, aingeru zelarik, Jainkoari jazarri zelakotz. Uste duk orai Martzelinoren errana segituko duela?
**GILEN:** Emazteari hori erran diok? Segur hiz etxean dukala orai?
**KIRIKO:** Egia aitortu behar daiat. Ez dakiat norat pasatua den eta kexatzen hasia nuk.
**GILEN:** Sinda... To, ez nindaikek batere samur harro aldi bat ona ukaiten balu...
**ULALI:** *(sartzen da)* Mutiko bat bada hor, jaun mera galdez.
**GILEN:** Zer mutiko?
**ULALI:** Ez dut ezagutzen. Galtza gorritan da.
**KIRIKO:** To, hura duk. Nik ikusi dutalarik, galtzak laxatiak zitian, bainan segur nuk gorriak zituela.
**GILEN:** Segur hiza?
**KIRIKO:** Kanpotiar guziak ez dabiltzak galtza gorritan, dudarik gabe?
**GILEN:** To, pollita nuk! Zer egin behar diat?
**KIRIKO:** Ta, mutikoaren ezagutza egin.
**GILEN:** Ez nuk ene buruari fida.
**ULALI:** Ez du gaixtoaren manera. Apez-gai aire bat du.
**GILEN:** Aitaren gatik baizik ez bada ere, bebarko diat errezebitu.
**KIRIKO:** Zerbaiten hartzerat gomita zak.
**GILEN:** Ulali, xanpaña botoila bat idek azu, otoi. Nik egiten badut, berdin zanpan audurrerat igorriko bakot buxuna. *(Ulalik idekitzen du)*
**KIRIKO:** Atx!... Gosta behar zauk egungo bisita!
**GILEN:** Herriaren kondu ezarriko ditiat gastuak. Herriaren onetana ri nuk lanean.
**KIRIKO:** Errak, to. Lepoko-fokarik gabe batere ez hiz ontsa...
**GILEN:** Ulali, zure senarraren lenoko-floka bat behar dautazu prestatu.

**KIRIKO:** Aloka-saria, herriaren gain...
**ULALI:** Ene senarrak ez du lepoko-flokarik ibiltzen. Bainan baño badugu, udatiar batek ahantzia. Hura ekarriko dautzut.
**GILEN:** Ekar-azu berehala, otoi, *(Ulali ateratzen da)*
**KIRIKO:** Zainak airean dituk, mutikoa. Hire zainen jabe behar duk izan, bertzenaz xahu hiz. Jar-adi goxo-goxoa, gorputza gibelerat uzkalirik, papua zabal, zangoak kurutzatuak, boneta buruan, hura sartzean kentzeko. Ba ahal dakit Errekart eta bertzeak, bozen galdez jiten direlarik, nola egoiten diren?
**GILEN:** *(Kirikok erranak eginez)* Hola?
**KIRIKO:** Pipa afoan, kea sudurretik ufatuz, jaun aire bat izanen duk. Zigarreta baino hobe puroa. *(so eginez ostatuko alaseri)* To, horra Ulalik nun ezartzen dituen puroak. Har-ak ederrena *(emaiten dio)* Kaseta bat behar huke orai...
**GILEN:** *(puroa pizten du, zainak airean)* Zendako kaseta bat?
**KIRIKO:** Sartzen delarik, irakurtzen hatxeman hezan; norbait direnen gradoan hizala ikusiko dik hola.
**GILEN:** To, mutikoa, nik ez diat sekulan kasetarik irakurtzen. Aski diat emaztea etxean. Harek baino berri gehiago ekarriko duen kasetarik ez diat nik ezagutzen.
**KIRIKO:** *(kadera baten gainean den paper meta bat gainekoz-behera ezarriz)* Hea Ulali zer duen hemen *(Enbata atera)* Ez hau utz dezagun hor berean. Hori ikusi eta, berriz ere lasterreria ukanen dik bertzenaz...
**GILEN:** Ulaliren arabera, egia ainitz omen duk kaseta hortan.
**KIRIKO:** Ba, hala duk. Bainan, Ulaliren egiak, Suprefetaren begietan gezurrak baitira ordia. Hobe diuk hau gordetzea *(bertze bat ateraz)* Hau xarmanki izanen duk.
**GILEN:** Basque Eclair. Epherre kalonjea dik buru. Xuberotarra izana gatik, bere aingeru bisaiarekin, denekin akort duk.
**ULALI:** *(sartzen da. Aintzineko taulierraren petik, lepoko-floka gorri bat ateratzen du)* Kukuturik ekarri dut, ez dezan ikus.
**GILEN:** Hori, ahatik, ene pentsatzeko manerarendako, gorrixko da!
**ULALI:** Zer uste duzu udatiarrek, zuk hautatzeko amorea gatik, hautua uzten dutela?
**KIRIKO:** Lepoko hori xarmanta duk, Gilen. Gorrien alderat lepoa, xurien alderat eskuko kaseta. Hola, denena eginen duk.
**ULALI:** *(Gilen lagunduz lepokoaren ezartzen)* Zonbait igandez, apezek ere kasula gorria ezartzen dute soinean.
**GILEN:** Puro bat hartu dauzut, Ulali. Ezar-azu herriko konduan. Eta orai, errozu sar dadien. Eta kasu: zure sudurrik ez dadila hunarat ager. Hain segur gauza seriosez elekatzerat jina da.
**ULALI:** Ez kexa. Ez niz kurios pinterdi hetarik.
**GILEN:** Borta gibelean ez egon beharria hunat luzaturik...
*(Ulali ateratzen da)*
**KIRIKO:** Hea, Gilen; ikus orai nola plantatzen hizan. Ez gal gogotik herriaren ordaina hizala. Eta behar bada, helduden bozetan, hire lekua oraiko biltzarre huni zor izanen duk!
**GILEN:** Nihaurek ere beldur hori diat. Bainan, ago. Ez dazkeat gordeko Martzelino, hire emazteak eta heien kidekoek egiten dauzkidaten urdekeriak.
**KIRIKO:** Ez dakiat, to. Nik uste berriz ixilik egoitea hobe ote dukan. Holako gauzen aditzeak ez dik plazer egiten. Aise hobe duk erakustea herriko gida guziak hire eskuetan direla. Aitari erranen dik gero: «Badute auzapez bat, holakoa!» *(Behatza xut altxatuz)*
**GILEN:** Sinda ikusia balinbadu jadanik, pondu horren gainean, eneak egina dik...
**KIRIKO:** Baniak laster batez etxeraino. Kexatzen hasia nuk debruak ereman ote dautan, egiazki, Sinda.

## VI

Gilen eta Galtzagorri

**GALTZAGORRI:** *(barneko bortatik sartuz)* Jaun mera?

**GILEN:** *(xutitzen da mila fazoinekin eta bonetarekin agur haundi bat egiten)* Zure eta Frantziaren zerbitzari.

**GALTZAGORRI:** Sartzen ahal niz?

**GILEN:** Sar gostuan. Borta guziak idekiak dituzu herri huntan. Ni naiz herriko burua eta...

**GALTZAGORRI:** Hori da egiazko demokrazia: denek gida bakar bati obeditzea...

**GILEN:** *(xanpaña xerbitxatuz eta basoak koskatuz)* Zure osagarrirat eta ene onerat *(edaten dute)*

**GALTZAGORRI:** *(lepoko-floka erakutsiz)* Ezkertiar?

**GILEN:** *(eskuan duen Basque-Eclair erakutsiz)* Nahaz-mahas, denetarik puxka bat.

**GALTZAGORRI:** Kaseta eskualdun bat?

**GILEN:** Ez beldurrik ukan. Izenez bakarrik. Apezpikuaren geriza pean baita, biziki maltsoa da.

**GALTZAGORRI:** Zonbait aldiz, apezpikuak, beren predikuetarik iduri duten baino bihurriagoak dira izaitez.

**GILEN:** Badute aski lan erretorak hainean ezin atxikiz.

**GALTZAGORRI:** Aditua dut, Eskual Herrian, apezek dituztela herrietako gidak.

**GILEN:** Badakizu zer den? Eskualdunek burua apaltzen dute gauza hoberenak eta iraunkorrenak hitzemaiten dituztenen aintzinean. Jainkoa eternala izanki eta Errepublikako Presidenta ez, horra gakoa. Frantsesak berriz, arras bertzalderat eginak dira.

**GALTZAGORRI:** Hain segur ba. Eta zu, hain justuki, Errepublikako presidentaren ordaina izanki...

**GILEN:** Gainerat, auzapez izaiteko, nahi ala ez, urtean behin bederen bazkotako, kofesatian pasatu behar da. Herri guzien, boza bat izaiten da kontrakoa: errientarena. Bakarra da elizarat goaiten ez dena. Ikusten duzu, Ego te absolvo, gako ona dela herriko etxearen atea zabaltzeko.

**GALTZAGORRI:** Eta politikan?

**GILEN:** Bien artekoxe, hor., igerika. Igela bezala. Hura ere ez da ez arrain, ez haragi. Udan, erlijionea beren galtzak bezain labur duten kanpotiarrekin, gorri aire bat hartzen dut. Hek joan ditela, eta huna nun nizan xurirat pulunpatua. Xirio miru bat debruari, ezko larri bat Jainkoari... Kanpotiarrer bildu mozkinetarik bizi behar dugu eta...

**GALTZAGORRI:** Eta zure pentsatzeko manerak, zertan dituzu?

**GILEN:** Ontsa... Ez naute batere griñatzen...

**GALTZAGORRI:** Osagarriarentzat, aire sanja on omen da; bai eta ere estomakarentzat idaiaz kanbiatzea.

**GILEN:** Medikuntzan ari zira?

**GALTZAGORRI:** Erraiteko, doia. Denetarik zerbaitxka *(botoila hartuz)* Zure erremedio huntarik hartuko ote dugun?

**GILEN:** Botoila guzia zuretzat da. Hurrupaño bat hartuko dugu. *(edaten dute)*

**GALTZAGORRI:** Errazu, eta; Sinda, zure axuranta, zer emazte da? Ez da puxka bat bihurria?

**GILEN:** Bihurria ote den! Aitortu behar dauzut zerbait: zonbait aldiz halako errabian ezartzen nu, nun gogotik hil bainezake.

**GALTZAGORRI:** Kolera bulta pasatzen zauzia fite?

**GILEN:** Haren senarra, ene adixkide hoberena da. Pentsatzen dut bizi guzian harek pairatzen ditueneri eta orduan, berehala eztitzen niz.

**GALTZAGORRI:** Beharrik. Hola, ez duzu bekatu beniel bat baizik egiten.

**GILEN:** Kofesorra ere zira?

**GALTZAGORRI:** Errana duzut jadanik: denetarik zerbaitxka.

**GILEN:** Emaztek ez nute biziki kexatzen. Denak badazkitela uste dute, bainan deus ez dakite.

Beren gisa utzi behar dute. Erraiten baze nahi dutena egiteko, orduan, segur, zuk nahi duzuna eginen dute.

**GALTZAGORRI:** Filosofian ere ari zira polliki...

**GILEN:** Filosofia baino hobe da oilo salda ona.

**GALTZAGORRI:** Egia duzu. Gauzak behar dira diren bezala ikusi.

**GILEN:** Eta zerga guti. Jendek gogo onez pagatzen duten zerga bakarra da igandetako eskea. Jainkoaren mirakuluz.

**GALTZAGORRI:** Aipatzen bazintu orai herriari buruz dituzun xedeak?

**GILEN:** *(Galtz. belauna eskuz tanpatuz.)* Ontsa, ontsa. Aitak igorria zitu xehetasun horien galdegiterat? Bainan, nun dut burua? Aitaren berriak ez dauzkitzut oraino galdegin!

**GALTZAGORRI:** Biziki ontsa da, milesker. Ez dakit zer pasatzen den bainan herri huntan denek aitaren berriak galdegiten dauzkidatet.

**GILEN:** Maite baitugu, mutil, maite baitugu... Haren osagarritarat edan dezagun *(basoak altxatzen dituzte)*

**GALTZAGORRI:** Topa!

**GILEN:** Bueno, bueno... Horra: latsaharri berri bat egingo dut errebotearen eta hil-oiroit-harriaren artean.

**GALTZAGORRI:** Leku hortan?

**GILEN:** Orai duguna, biziki urrun da eta lurrean apal. Xuritzen hartzeko emaztek ukurtu behar dute. Jaun erretorak dio, kukutu beharrak denen bixtarat agertzen dituztela orduan. Eta gero, alabainan, ikusliarrek gogoeta txarrak egiten...

**GALTZAGORRI:** He! Ez niz erretoraren idaiako. Gogoeta txarrak balinbaditu horiek...

**GILEN:** Bekatuak higuingarriak balire, ez ginuke kofesategi beharrik *(basoa eskuetan hartuz)* Hainbertze bekatu goxo bada... *(edaten du)*

**GALTZAGORRI:** Noiz lotzen zirezte latsaharriari?

**GILEN:** Sosa eskuratu bezain laster. Suprefetaren eskuetan baita ordia. Uste duzu emanen daukula?

**GALTZAGORRI:** Segur ere, ba. Igor-akozu gastuen xehetasuna.

**GILEN:** Haize-erauntsi batek airatu dauzku meriako teila zonbait. Itaxura bat badugu Errepublikaren itxuraren gainerat. Han dago ihauteriako maska bat iduri.

**GALTZAGORRI:** Errazu, eta... Nik erraiten banauzu ez duzula sos galdegiterik, zer erran zinezake?

**GILEN:** He!... Sosa ez dela zerutik beheiti erortzen itaxura bezala.

**GALTZAGORRI:** Zuk uste baino aise hurbilago baduzu nahiko sosa.

**GILEN:** Ba, Ulalik bere moltsan daukana. Ez zinuke nahi ohointzan has nadien orai?

**GALTZAGORRI:** Ez, gizona, ez. Bainan sosa hatxemaiten ahal duzu herritik atera gabe.

**GILEN:** Ez dut uste...

**GALTZAGORRI:** Nik bakarrik dakitan segeratua da hori.

**GILEN:** *(xutitzen da, bortatik so egiten norbait baden barrandan dagonik)* Erradazu zure segeretua. Irabazia erdizka eginen duzu.

**GALTZAGORRI:** Bon, ontsa da... Ezagutzen duzu Errekazulo?

**GILEN:** Ezagutzen ote dutan! Bainan, otoi, eni ez aipa harat joaiterik. Sorginek beren akelarreak han egiten dituzte ebiakoitz aratsetan: Angleterrako erreginaren pare tronu batean jarririk, aker bat dute denen buru. Oilarrak lehen kantua egin artio, ez da Errekazulorat joan behar.

**GALTZAGORRI:** Harpe hartan bada ur-zilo bat. Ur-ziloaren zolan berriz arrain miragarri batzu badira.

**GILEN:** Ez duzu dudarik gabe uste arrain hetarik salduz eginen dutala latsaharriaren saria?

**GALTZAGORRI:** Hori bera. Arrain xoragarri hel badituzte balio haundiko ezkata urrezkoak.

**GILEN:** Ez niz Salomon bainan ez ditut haur xoxokeria horiek sinetsiko.

**GALTZAGORRI:** Sorginetan sinesten duzu. Eta arrain urrezkoetan ez duzu sinesterik ukaiten ahal?

**GILEN:** Urrezkoak balire, pizuarekin, zolarat erort litaizke?
**GALTZAGORRI:** Egia balitz eta bertze norbaitek hatxemaiten balitu? Suprefetak pentsatuko du zozo bat zirela.
**GILEN:** Holakorik ahatik ez nuke nahi.
**GALTZAGORRI:** *(edaterat emanez)* Frantzian bakarra izanen zira errepublikaren itxura, urrezko gapelu batekin ukaiten ahal duzuna.
**GILEN:** *(irriz eta edanez)* Hi, hi, hi! Sinda, Martzetino eta heien klikak ikusiko nutelarik, hi, hi, hi! irriz hortz urreakoak iguzkitarat dirdiran, zer burua eginen duten! Hi, hi, hi!
**GALTZAGORRI:** Beraz?
**GILEN:** Goazen, goazen, zer debru. Gero ere, karrika egin-eta kito *(bortarat heltzean)* Pasa zite lehenik, jauna.
**GALTZAGORRI:** Holakorik ez. Buruzagiak lehenik. Pasa zite, jaun mera *(Gilen ateratzen da oilarra kukurrusta bezain gorri eta gora. Galtz. ere ateratzen da.)*

**VII**

**ULALI:** *(sartuz)* Jesus! Hauxe da sofre usaina utzi duen barne huntan Galtzagorrik *(leioa idekitzen du)*
**BOZA BAT IKUSLIARREN ARTETIK**: Mixterio espantagarria, Ulali.
**ULALI:** *(ikusliarrer buruz)* Zer dela pintx arditegi batean bildotx multzo bat, afoa zabal-zabala? gezur iresten?
**BOZA BAT:** Eutxi! Eutxi!
**ULALI:** Sala hau zuek denak barnean.

Oihala

## Hirugarren gertaldia

Lakaberats erretoraren bulegoan. Mahain bat, kaderak, belaunikatzeko kadera bat, Jeanne d'Arc-en itxura, saindu batzuen eta Aita sainduaren potretak murruetan, Lourdeko orroitzapen eta bertze, bazterretan. Bi borta. Leio bat baratze batetarat idekitzen dena.

**I**
Lakaberats

**LAKABERATS:** *(jender buruz)* Ezagutzen duzue Blandina ene iloba? Segur ere aditua duzue jite bihurria dutala erraiten. Bainan hori, ez da arras hola. Huna egia: Jainkoak gutarik bakotxari emana duen pazientzia zama, ni baitan, zonbait aldiz, fite agortzen. Ba, arrozoinekin ba, ainitzetan. Beha zue, erraiteko baizik ez da. Goizean, lehen mezaren emaiteko elizan sartu nizalarik, zer ikusi dut? Sindaren kadera, bihotz-sakratuaren kaperan. Nik ez dakit nola mila sorgin egiten duen! Egun guziez, kadera handik kentzen dakot. Egun guziez, eliza zerratu aintzin, artea hatxemaiten du berriz bere kaderaren han emaiteko. Aski errana dakot ez dutala, ez haren kadera ez bertze nehorena, han ikusi nahi. Geroztik, madamak mutur egiten daut. Bidean kurutzatzen dutalarik *(haren sinoak eginez)* prisaka pasatzen da, bere sudur mirua zeruari buruz xut airea usmatzen duela, «agurrr» idor bat kurkuratzen duela. Hori kofesatzen dela, zuen ustez? Eni, ontsa nardarazteko. Eta trufaren gainerat musika, bere bekatuak kofesatzeko orde, apez batek egiten dazkon miseriak kondatzen dauzkit. Apez hura, ni niz

alabainan. Bere hutsak agertzeko orde eneak egiten baititu, ez dakit sekulan hari ala nihauri emaiten dutan atsulizonia. Eliza bortan Zuturreko Pepatxu hatxeman dut. Ene beha zagon. Primadera guziez, gauza bera da. Ezkontzeko errabia lotzen zaiote emazteri. Aurten, Zuturrteko Pepatxuren aldi. 32 urte dituela dio. Nik aditua emazteak aitortzen duen adinari, bortz gehiago eman behar zaiola beti. Pepatxuk baditu bere gisako idaiak. Senartzat nahi luke alargun bat. Eta gehiago dena, alargun hura nahi luke nik hatxemaitea! Jainko haundia, nik! Apez baten lana dea hori? Erran diot: «So egizu, Pepatxu. Aldare aintzinerat ekartzen badautazu alargun bat, gogotik esposatuko zitut harekin. Bainan ez, uste izan kantonamenduko alargun guzien ikusten ibiliko nizala, zu eskainiz». *(Jenderi)* Zuen artean balin bada alargunik emazteketa dabilanik, horra komisionea egina: Zuturroko Pepatxu hor dago aiduru.
Gero askaiteko tenorea jina zen. Goseak xixpildia nindagon, eta garizuma izanki! Karia hortarat, Blandinak xokoleta esnean emaiteko orde, urean emaiten daut. Ura azukrerik gabe edan arazten daut eta bezperako ogi zaharra, burrarik gabe, jan-arazten Penitentzia egin behar omen dut. Jan ondoan, nik zigarretaño bat maite. Zazi zu aipatzerat! Garizuma da, piparik ez! Harrituko zirezte gero zonbait aldiz kexu-kexuan izaiten baniz. Ondar ahamena iretsi orduko, tirrint! Norbait atean. Haste proosionea. Aldi huntan, Kapiturribordako Ponpolonio da. Ikusi ote duzie sekulan ibai-zaldirik? Ponpolonio arraza hartarik izan behar da. Jarria delarik bularrak triparen gainean ditu eta tripa belaunen gainean. Begiak doi-doia idekiak eta ezpain zokotik dilindan, zigarreta mutur beltzatu bat. Ene errabia! Eta futxo, nik ezin pipa! Enfin, hori bertzerik da... Ponpolonioz mintzo nintzan. Ibai-zaldiek ez duten itzal bat badu gaizoak: ahuntz-okerra bezain jeloskorra da. Hortarik ageri da alimaleak, gizonak baino urosago bizi direla. Gaizo Ponpolono. Bederatzi haur ukanki eta beldur ez dituela denak bereak. Norenak dituen? Hori, nitarik nahi luke jakin. Eni kofesatzen dela eta nik badazkitala denak... Zer uste du, apez batek egiten ahal duen bekatu larriena, nik eginen dutala? Kofesategiko segeretua salduko dutala? Holakorik oraino!
Ponpolono joan eta bake puxka bat goxatuko nuela dudarik gabe... Bai, to! Tirrint! Bon! Nor da berriz hor? Oraikoan, serorak. Soeur Claire eta Soeur Pierre. Horiekin, bertze ixtoriorik da. Hek bota frantsesetik, nik errefera eskuaratik. Nik bota eskuaratik, hek errefera frantsesetik. Azkenean, zerbaiten galdegiterat jinak baitziren, lotu dira eskuarari. Iduritzen zaiote, erdaraz mintzatuz beren burua goratzen dutela. Eni iduritzen, eskuaraz mintzatuz, Jainko legea hobeki segitzen dutela... Komentu ondoko lur bat begistatua dute. Jabeari nahi banio hitzño bat erran... Bertze munduan Jainkoak pagatzekotan nahi lukete. Tratuan, serorek ez dute parerik. Bankoetako buruzagiak, heien aztalaren peko ez ditaizke sail hortan. Kontzientzia kilika zuten puxka bat. Zaldi-lasterretan ehun libera bazituzten jokatuak joanden igandean. Irabazi balute, sosaren kobratzeko, nihun kilikarik ukanen ote zuten? Enfin, zer nahi duzue... Mundu hau hola da.
Azen ontzeko, Maritxipi jin zaut gero, eskutik zakarrala Porroskiña, bere seme gaztena. Delako Porroxkiña, gito batek begi gaxtoa botarik, konjoratua omen da. Ez omen du gehiago deus jan nahi, ez eskolarat joan nahi. Debrua behar niola nik kasatu. Eta Marixipiri ezin sinets-araz haurkeria horietan ez dela sinetsi behar. Azkenean, bakea pagatuz ere on baita, ur-benedikatu xorta bat bota dut Porroxkiñaren gainerat. Bixkotxa bat eman diot gero. Dudarik gabe debrua lekutua zen hartarik. Bixkotxa hirrimili-klik iretsi eta bertze bat galdegin daut. Zaflako bat ona bildu du amak emanik. Marixipi irriz eta Porroxkiña nigarrez, joan dira azkenean hemendik *(bortari buruz badoa)* Ba, ba; mintza zirezte gaizki apezez. Nik erranen iauzuet zerbait: sotana bat emazue soinean eta ikus enea bezain iraunkor litaiken zuen pazientzia *(eskoineko bortatik ateratzen da)*

## II

Blandina, Etxeberri I eta Etxeberri 2

Taula gaina hutsik egon da ixtaño bat. Tirrinta aditzen da berriz. Eskoineko bortatik sartzen da Blandina.

**BLANDINA:** Aintzina, aintzina! Sartzen ahal zirezte, nehor ez da *(Etxeberri I eta 2 sartzen dira. Zaku larruzkoak besapean. Batek paketa bat badu eskuan)* Aintzina, bainan ezti-eztia kurri zaitezte.
**ETXEBERRI I:** Zendako?
**BLANDINA:** Egun, erretorak ainitz ikusliar ukan du. Jendea ez da atertu hemen, eta badakizie zoin akigarri den deneri buru atxikitzea?
**ETXEBERRI 2:** Uste duzu?
**BLANDINA:** Batek hau dela, bertzeak hura dela. Batek ezetz, bertzeak baietz... Serorak ere izan zazko. Ardurenean, heien bisitak ez dira bihotz altxagarri. Ni beldur jende guti jiten den erretor baten ikusterat, plazerrez.
**ETXEBERRI I:** A! Zendako?
**BLANDINA:** Zendako... Zendako...Ez dakizia bertzerik erraiten? Errepostuak du gogoko berri salatzen eta ez galdeak. Ageri duzue donado zireztela.
**ETXEBERRI 2:** Eskualdunak ele guti du.
**BLANDINA:** Hartako ditu bere arrazoinak ukumilo ukaldika finkatzen?
**ETXEBERRI I:** Barkamendurekin, nor zitugu?
**BLANDINA:** Erretoraren iloba, xoil-xoila. Nik dakitala, apez ezkondurik ez da, oraino segurik.
**ETXEBERRI 2:** Barkamendurekin, zerbait galdatzen ahal ote dauzut?
**BLANDINA:** Ez, ez. Hede-zuriekin nahiago dut ez mintzatu.
**ETXEBERRI I:** Beldur debaldea duzu hor. Izaitekotz ere, heien etsaietarik gira.
**BLANDINA:** Beraz, gauza bertsua da. Oraiko, egunean ez da errex jakitea nor dabilan bide xuxenean... Nor zireztela behar diot erran?
**ETXEBERRI 2:** Bi abertzale.
**BLANDINA:** Bainan, ez zirezte eskualdunak?
**ETXEBERRI I:** Bai andre.
**BLANDINA:** Bon. Erranen diotet badirela hor ezagutsten ez ditudan 2 eskualdun Eta kasu zuen mintzatzeko manerari.
**ETXEBERRI 2:** Zendako?
**BLANDINA:** Zendako?...Berriz ere, zendako? *(ezkerretik ateratzen da)*

## III

Etxeberri I eta Etxeberri 2

**ETXEBERRI I:** *(Zakutik paperra eta luma ateraz)* Ikusten duk nor den hor? *(Jeanne d'Arc-en itxura erakutsiz)*
**ETXEBERRI 2:** Ai! Joana saindua!
**ETXEBERRI I:** Sacerdos franchisimanisimus habemus.
**ETXEBERRI 2:** *(zerbait bilatuz zoko guzietan)* Erretorak ez dakik hain segur, anglesek erre zutelarik, Joana saindua, eskualdunak angles zirela eta ez frantses *(lau patetan jarriz J'Arken itxura pean)* huna nun den lotkia.
**ETXEBERRI I:** *(burdinazko untzi bat ateraz, eletrika hari batekin)* Lehen, su-piztalen lerroan zian, eta orai emazte aipagarri. Hori deitzen duk untzi guzietako zali izaitea *(biak lau patetan burdinazko untziaren eletrika lotkian ezartzen)*

## IV

Berak eta erretora

**ERRETORA:** *(sartu eta borta hetsiz erraiten du)* Jainkoak bisitak igortzen dauzkigu, lagun protximoaren alderat dugun amodioaren frogatzeko *(lurrean lau-hatzez direla ohartuz)* E ba! Ye je modan agurtzen nuzue ala zer? *(sakelatik Gitane paketa huts bat ateratzen du)* Buhhh! *(zimurtzen du eta lurrerat botatzen)*

**BI ETXEBERRIAK:** *(eskuak juntatuz, belauniko)* Barkatzen daukuzu?

**ERRETORA:** *(kexu)* Nitaz burlatzen zirezte ala zer? Hik, nola duk izena?

**ETXEBERRI I:** Etxeberri.

**ERRETORA:** Eta hik?

**ETXEBERRI 2:** Etxeberri.

**ERRETORA:** Biak? Brrr... Anaiak zirezte?

**ETXEBERRI I:** Ez. Ez eta ere ahide.

**ERRETORA:** Irri guti, gero, hemen. Hik nola duk izen-ttipia?

**ETXEBERRI I:** Xan.

**ERRETORA:** Eta hik?

**ETXEBERRI I:** Juan.

**ERRETORA:** Ez nuk jostagura gero ni.

**ETXEBERRI 2:** Hala dena erraiten dauzugu. Biek Joanes dugu izena.

**ERRETORA:** Jean, Juan... Bat frantsesa, bertzea española...

**ETXEBERRI I:** Ez jauna, biak eskualdunak.

**ERRETORA:** Ba, bainan Bidassoa bien artean...

**ETXEBERRI 2:** Donibanen bizi naiz, hau Gernikan.

**ERRETORA:** A! Gernika! Gernikako arbola eta bertze pertolikeria... Ba, ba, aditzea badiat. Ez zirezte bederen politikaz mintzatzerat jinak?

**ETXEBERRI I:** *(eskainiz)* Zigarreta bat?

**ERRETORA:** Ez, mutil, ez eta ez. Garizuma denboran, eni ez aipa isentsuaren kea baizik. Zorigaitzez. Brrr!

**ETXEBERRI 2:** Guk, pipatzen ahal dugu?

**ERRETORA:** Ba. Bainan, kasu. Hautsik ez utz lurrerat. Nihaurenak eta asto beltxarenak adituko baititut bertzenaz ilobak erranik. *(Bi Etxeberriek zigarretak pizten dituzte, kea sudurretik igorriz plazerrekin)* Brrr! Eta, jakiten ahal duta zer ari zirezten hor lau-hatsez lurrean?

**ETXEBERRI I:** Zuri egingo ditugun galden errepostuak nahi ginuzke zintan hartu.

**ERRETORA:** Zer uste duzue, Ben Barka nizala ni? Ixtantean, kofesategirat ere abiatuko zirezte, ziek, zihauren mekanikarekin! Ala fedea!

**ETXEBERRI 2:** Itxaropena izena duen batasuneko ikasle gira.

**ERRETORA:** Itxaropena, zer duzie hura?

**ETXEBERRI 2:** Erdaraz «l'espoir» deitzen duzuna.

**ERRETORA:** Eta eskuaraz, esperantza. Ez gero eni beharriak bero zuen politika ixtoriokin...

**ETXEBERRI I:** Ez gira politikaz mintzatzerat jinak. Ikertze bat egiten dugu elizako urratsen gainean. Zure ganik nahi ginuzke jakin parropia huntako zonbait berri.

**ERRETORA:** Jainkoari esker, hemen denak elizan ibiltzen dira, salbu eta errienta. Bainan biak erdaldunak dira. Arta har dezatela beren arimaz! Purgatoriotan egon aldiño bat eginen dute ba, dudarik gabe, baina bertze guziak zeruan ikusten ditut. Ifernuko billeta, ez dut uste nehorek hartzen duen. Beroa ez dute halaxet maite.

**ETXEBERRI 2:** Gure ikertzean, erlijioneaz bezala, ekonomiaz ere griñatzen gira. Erlijioneko gauzek zer balio ote dute eskualdunendako? Horren jakitea errex da. Zertsu emaiten dute igandetako eskean? Sainduen ohoretan zonbat xirio erretzen dute? San Antonioren eta Purgatorioko arimen eltxetxean, zonbat emaiten dute?

**ERRETORA:** Ene sotanak zonbat pottoin dituen ere nahi duzue behar bada jakin? Zonbat lur-sagar dutan sotoan? Ene ilobak zer adin duen?

**ETXEBERRI I:** Horiek, nor-beraren egitekoak dira. Gure ikertzeak ez, du xehetasun horien beharrik.

**ERRETORA:** Norberaren egitekoa ala ez, nitarik ez duzue deus jakinen. Ikusten dut norat ari zirezten. Zuen ikertzea ala jazko haizea, berdin. Estakuru bat politikan hartzeko. Saindu itxura pean, herra eraile batzu zirezte, bertzerik deus ez...

**ETXEBERRI 2:** Gure herriaren alderako amodioa nahi dugu zabaldu. Ez aipa guri herrarik.

**ETXEBERRI I:**

Ta asi gaiten abesten Euskalerria-ri
Gure gogo biurtuz bera bezin garbi
Gorrotua eta doiltzala igesi
Gure basoetan ez txori oiek kabi

**ERRETORA:** Olerkariak, azen ontzeko! Buruan dabiltzan hitz ederrek xoratzen dute olerkaria. Hitzez goresten duenaren obratzea, ez aipa ahatik hari.

**ETXEBERRI I:** Ez naiz olerkaria. Montzon-en bertsu batzu ditut atera.

**ERRETORA:** Monzon? Ha, ha! Ezagutzen dut xoria! Xori-buru gaizoa! Hobe luke, bertsu egitea utzirik, Bergaran gaindi zabaltzen balu martzuka-gorrien landatzea. *(Etxeberri I-i)* Hi ere, joaiten ahal hiz Gernikarat. Hemen ez duk faltarik eginen. Gu, Frantsesak baigira, bakea eta bi sos nahi ginizkek gure etxean.

**ETXEBERRI 2:** Eskualdun hotz eta giristino ahul ote ziren, badut beldurra.

**ERRETORA:** Zuek berriz, deus ez gizon. Zuen buru-berokeriak direla medio zeparatizmorat eta komunixtgorat ari zirezte lerratzen. Eta orai, aski erranik. Zoazte hemendik eni gehiago erran-arazi gabe.

**ETXEBERRI I:** *(mañetofono hartuz)* Gure galden erreposturik, ez dugu zutarik ukan. Halere, xoria kaiolan preso bezala, zure erranak zintan harturik eremaiten ditugu.

**ERRETORA:** Orzi-ximixtek bixta huntarik ereman zitzatela!

**ETXEBERRI 2:** Eta zu, debruak berekin ereman zitzala. Konpainia hoberik ez du nihun hatxemanen *(ateratzen dira)*

## IV

Erretora

**ERRETORA:** *(Jeanne d'Arc-i mintzo)* A, Juana, Juana saindua! Barne huntan berharko dut zu baino saindu baketsuagoa ezarri. Ez dakit zure falta den ala zer. Bainan zerbaitek, ausikika hartzeko trenpean ezartzen nu. Jitez, maltsoa niz. Eta bat batean, oro zafra nitzazke ene inguruan... Gaizo mutikoak! Soberaxko erran diotet... Arrazoin dutela jakinki, eta ixilik ezin egon, kontrarat mintzatu behar beti! Hasi eta, berriz, gelditzen ez jakinki! Guk, apezek, behar ginuke alta gure buruen jabe izan... A, Juana Juana! Zure leku hortan Santa Terexa ezarri behar ote dutan... hats-beherapenka) Zer nahi dela, hea lagunduko nuzun igandeko predikuaren bururatzen! *(mahainari buruz doa, paper batzu hartzen ditu eta ahapetik irakurtzen)* Mmmm!... Badakit zer erran behar dutan... *(ikusliarrer buruz)* Zuk, an eta emen *(bortako tirrinta aditzen da)* Ale! Nor da berriz orai hor *(leiotik so egiten du)* To! Norbait galtza gorritan! Ez nuen bertze beharrik *(jender buruz)* Zer behar den ikusi, bertzenaz...

## V

Erretora - Blandina

**BLANDINA:** *(mixterio aire batekin sartuz)* Suprefetaren semea hor duzu.

**ERRETORA:** Suprefetaren semea?

**BLANDINA:** Ba. Bere galtza gorriekin.

**ERRETORA:** Zer dira, galtza gorriak, suprefet-semen seinaleak?
**BLANDINA:** Badukete ba bertze galtzarik ere. Bainan hau, Suprefetaren semea da. Ezagutzen dut. Txiranberroenean izana da jadanik.
**ERRETORA:** Txiranberroenean?
**BLANDINA:** Ba. Sindarekin elekatua da.
**ERRETORA:** Beraz hobe dut nik ere mutiko hori errezebitzea. Zaza zer erranak dazkon ene gainean Txiranberroeneko nahasiak.
**BLANDINA:** Zer eskainiko diogu edaterat?
**ERRETORA:** Mezako arnoa baino hoberik deus ez da.
**BLANDINA:** Bertze zerbait hobe dugu ateratzea. Ni beldur, galtzagorriek mezako gauzak ez dituztela biziki maite. Behar bada kalte egin lioke.
**ERRETORA:** Bon, beraz, Saint-Raphael botoila atera zazu.
**BLANDINA:** Saindu izenarekilako botoila? He... kasu...
**ERRETORA:** Bertzerik ez da gure etxean. Galtza gorritan dela ta ez dakogu arno gorria eskaintzen ahal!
**BLANDINA:** Esnea?
**ERRETORA:** Esne batzeko adina ez dia pasatua?
**BLANDINA:** Bon, ez diogu deus emanen. Hola, ikusiko du apezak ez direla xurru-xurru edale hetarik, Sindak dion bezala.
**ERRETORA:** Orai, aski palamastrika. Sar-araz zazu.
**BLANDINA:** Hea oxtiko ikasleak baino hobeki errezebituko duzun hau? *(ateratzen da)*
**ERRETORA:** *(Jeanne d'Arc-i buruz doa)* Eztikiño, gizon, eztikiño... Hau suprefetaren semea dugu gero!

## VI

Erretora - Galtzagorri

**GALTZAGORRI:** *(sartuz)* Arratsalde on, jaun erretora.
**ERRETORA:** Bai zuri ere. Sar zite, sar aintzina. Jar zite hementxet.
**GALTZAGORRI:** *(jarriz)* Ixtant bat bakarrik. Badukezu bertze egitekorik.
**ERRETORA:** Ea, hori hala da. Kofesategia aski ez dela, jendea etxerat heldu zaut ez deus batendako. Medikuntza, etxegintza, marexalgo ala notariogo, denetarik egin behar dut. Jendek uste dute denetarik jakintsun, Jainko ttipi girela.
**GALTZAGORRI:** Egiazko fedeak, fidantzia osoa galdegiten du denen alderat.
**ERRETORA:** Zer nahi duzu... Ahal duguna egiten dugu. Beti xuxen kausituz, txotxetan miliunak irabaz glnezazke.
**GALTZAGORRI:** Itzuliño baten egiterat jina nintzan hunaraino. Maite dut eskualdun jitearen ikertzea. Hortakotz, herrietan ibiltzeak ez du parerik.
**ERRETORA:** Badira jiten direnak gure ikusterat, nunbaiteko mamu arraroak bagine bezala. Odola ere ez omen dugu bertzek bezalakoa. Baduzu, zuk ere, gure negurtzeko zerbait mekanikeria?
**GALTZAGORRI:** Zaude deskantsuan. Ni, denbora pasa nabila. Usaia zaharrez dut ene arrangura.
**ERRETORA:** Atx! Usaia zaharrak ezin zainduz ari den populua, hil ezkiletan da. Udatiarren ilusitzeko eta abusatzeko ateratzen dituzte aitzina, kexatu gabe on ala kalte den herriarendako.
**GALTZAGORRI:** Errana Eskualduna hotz eta idor dela jitez. Richelieu famatuak du erran ene ustez, Eskualdunak odol beroko jendeak direla.
**ERRETORA:** Izan ditake ozpin xorta bat badugula zainetan. Frantsesek, aldiz, eztia dute. Eta badakizu ezti xorta batekin, dupatra bat ozpinekin baino gehiago uli biltzen dela. Hortako ditugu bertzeak gure etxean nagusi.
**GALTZAGORRI:** *(irriz)* Karrikan behaztopatu ditut bi gazte. Nun bizi ziren galdegin diotet.

Badakizu zer erran dautaten? Ez zuri hurbiltzeko, ximixta dariozula.

**ERRETORA:** Egia da. Eta hek, ni debruetarat igorri. Jendek ezin ameti, sotanaren pean, apezek ere galtzak dituztela.

**GALTZAGORRI:** *(zigarreta eskainiz)* Zigarreta bat?

**ERRETORA:** Ez, milesker.

**GALTZAGORRI:** Behingoan, hartzen ahal duzu...

**ERRETORA:** Ez nezazula tenta.

**GALTZAGORRI:** *(zigarreta bi parte eginez)* Bi parte egiten den tentamendua ez omen da konda.

**ERRETORA:** To, to! Bon, aintzina ere guk burua apalduko dugu *(pipa pizten du eta plazerrekin hasten da pipatzen. Gero Jeanne d'Arc-i behako bat emaiten du, hiru tirako pipari eta botatzen du)*

**GALTZAGORRI:** Errekazulo ezagutzen duzu?

**ERRETORA:** Harpea?... Ba.

**GALTZAGORRI:** Nahi nuke ikusi.

**ERRETORA:** Ez da deus errexagorik. Haraino joaitea aski duzu.

**GALTZAGORRI:** Fagorez, ez dautazu bidea erakutsiko?

**ERRETORA:** Hori aski baduzu, berdin... Bainan, zendako nahi duzu baitezpada Errekazulorat joan?

**GALTZAGORRI:** Hori, ene segeretua. Bainan erranen dauzut.

**ERRETORA:** Ez da bederen zerbait debrukeria?

**GALTZAGORRI:** Nehork ezin erran...

**ERRETORA:** Kasu. Jadanik, pipari lot-arazi nuzu. Nahi nuke jakin orai zer sorginkeria duzun buruan.

**GALTZAGORRI:** Bañore. Bainan pentsatzen dut sos beharretan zirela.

**ERRETORA:** Nor ez da hala? Sosa izan banu, elizako aldare-nausia aspaldi berritua izanen nuen.

**GALTZAGORRI:** A! ikusten duzu! Errekazulon hatxemanen dugu zuk behar duzun, dirua.

**ERRETORA:** Urre-mina hatxemanen dugu han ala zer?

**GALTZAGORRI:** Mina behar bada ez, bainan urrez bete ur-ziloa, ba.

**ERRETORA:** Zer uste duzu, atzo sortua nizala, zure xoxokerien sinesteko?

**GALTZAGORRI:** Serioski mintzo niz.

**ERRETORA:** Burutik, ez duzu sekulan arrangurarik ukan?

**GALTZAGORRI:** Erran nahi duzu gaineko kaxola hori xilo dutala? Ea jauna, adimendu osoan niz.

**ERRETORA:** Zure arrazoinamenduak ez du hala emaiten.

**GALTZAGORRI:** Utz nezazu gauza den bezala erraiterat. Errekazuloko ur-haundian bada osina bat. Haren zola, arrain xoragarri batzuez betea da.

**ERRETORA:** Ha! ha! ha! Eta zer nahi duzu, Baionako merkaturat joan nadin heien saltzerat? Apezpikuaren burua ikustea gatik ere balio luke...

**GALTZAGORRI:** Ez, jaun Erretora. Arrain hek, urrezko ezkatak dituzte gorputzean.

**ERRETORA:** Petenta, eraztun eta lepoko ederrak ere ba, araiz?

**GALTZAGORRI:** Ez banuzu sinetsi nahi, txauri enekin Errekazuloraino. San Tomasek bezala, ikus eta sinets eginen duzu.

**ERRETORA:** Damurik, arrain-urrezkotan sinesteko adina pasatua dut. Haurren inosentzia garbia aspaldi galdua dut.

**GALTZAGORRI:** Gizonak badu halere beti jakitateari buruz haurrek duten gutizia ezin agortua. Jakiten ahal ez dena, beti jakin nahi. Ikusten ahal ez dena, beti ikusi nahi.

**ERRETORA:** Pondu hortan ere ez niz oraino 7 urtetarat heldua. Ene hasarre bultak ere, 7 urteko haur batenak dira. Garbitasunari esker, apezek badugu bertze gizonek galdua duten haur-inosentziatik zerbait. Bainan kuriosa bainiz, zerbait galdeginen dauzut. Erlijioneko ponduetan, ez zabiltzea holaxet-holaxet?

**GALTZAGORRI:** Egia erranen dauzut. Ez niz oraino bertze munduari pentsatzeko adinerat

heldua.
**ERRETORA:** Ontsa. Bon, beraz, heldu niz zurekin.
**GALTZAGORRI:** Eta nik, urrezko arrainak erakutsiko dauzkitzut.
**ERRETORA:** Eta nik zuri, zerbait harriagorik oraino erakutsiko dauzut.
**GALTZAGORRI:** Zer ote?
**ERRETORA:** Arrain hek nork eginak dituen.
**GALTZAGORRI:** *(xutituz)* Goazen beraz.
**ERRETORA:** *(borta bat erakutsiz)* Hemendik aterako gira. Pasatzean, amua hartuko dut. Arrain freskoa janen dugu afaiteko.
**GALTZAGORRI:** Aldarearen urrestatzeko urrea ere ukanen duzu.
**ERRETORA:** *(bortari buruz joaitean)* A! Gauza bat oraino: Egia dea Suprefetaren semea zirela? *(ateratzen dira)*

## VII
Blandina

**BLANDINA:** *(Ufa, ufa, usain-tzarren kentzeko tresna denetan pasatuz)* Jesus, Jesus! Hauxe da sofre usaina. Galtzagorriren presenta, dudarik gabe *(bere lana segitzen du)* Marrakuku zena bere alargunt-sari agertu zelarik-Bidegurutzetan, hol-holako arroltze-ustel usaina utzi omen zuen. Jendek diote Marrakukuk, misionesten boza oxena harturik, erran ziola emazteari: «Ni naiz Miarrakuku zure senarra. Purgatoriotan niz, eta zuri dago ene hemendik ateraztea. Hortakotz beha dituzu erretorari meza sari batzu eman. Badakizu, hari emaiteko orde pariatu eta galdu nituen hek, Haran eta Haranbillet buruz-buru jokatu zirelarik!» *(Pentsaketa)* Eta Galtzagorri ez balitz Suprefetaren semea? Egia erraiteko, Xurrupeko Rufinak ez zuen erran Miarritzeko galtzagorria hau zela, baitezpada. Hantxeko galtzagorri hura, erran zuen. Ez baitzen ordia bakarra, galtzagorritan! Zer lanetan jarri nizan potretarik gabe Herri guzia gainekoz behera... Suprefetaren seme izaiteko orde, debru seme bada? Eneak egin du! *(kurutzearen seinalea eginez)* Aitaren eta Semearen eta Izpiritu sainduaren...

## VIII
Blandina -Antikristo

*(Antikristo sartzen da, bisaia zurpail eta triste, Blandina kurutze seinalea bururatzen du)* Amen!
**BLANDINA:** *(harritua, belaunikatzen da)* Debrua, debrua!
**ANTIKRISTO:** Ez, Blandina. Ez niz debru bainan Alguazil eta su-hiltzale.
**BLANDINA:** *(xutituz eta eskuak hanken gainean ezarriz)* Zu hemen, ziren bezalako eretikoa! Nundik debru sartua zira?
**ANTIKRISTO:** Borta idekia zen.
**BLANDINA:** Beti apezen kontra zer, nahi erranka eta nun zabiltza hemen?
**ANTIKRISTO:** Hiltzeko beldurrak nabila, Blandina.
**BLANDINA:** Apezetxean hiltzeko beldurra, dudarik gabe. Ez duzia aski goraki erraiten, hil ondoan elizako urratsik ez duzula nahi?
**ANTIKRISTO:** Beldurrarekin, idaiaz kanbiatu niz.
**BLANDINA:** Eni eman dautazun izialdura segurik! uste nuen debrua zela.
**ANTIKRISTO:** Debrua?
**BLANDINA:** Galtza gorritan, herrian dabila. Zonbait arimaren bila jina, hain segur. Kasu zureari... Jakiten ahal duta zerk izitu zituen?
**ANTIKRISTO:** Jaun merak herriko etxerat igorri nu. Suprefetaren semearen ohoretan, bandera

leioan behar nuen ezarri...

**BLANDINA:** *(buruari loturik)* Jesus, desus! Beti Suprefetaren seme hori!

**ANTIKRISTO:** Bandera arteratzean, zeruari so egin dut. Orduan, bat batean, tormenta bat lotu zaut eta bolta txar bat ukan dut.

**BLANDINA:** Trenpetxartu, dudarik gabe...

**ANTIKRISTO:** Hartakotz heldu niz kofesatzerat eta lehen komunionearen egiterat.

**BLANDINA:** Komuniatzerat, su-hiltzeko arronetan?

**ANTIKRISTO:** Nahi nuke erretora mintzatu.

**BLANDINA:** Falta da, eta ez dakigu nun den. Bikarioa arrats artio Ezpeletan da, berriz.

**ANTIKRISTO:** Zer egin behar dut Blandina, zer?

**BLANDINA:** Erretor-iloba gisa bataiatuko zitut gogotik, bainan kofesatzeko podorerik ez dut. Zendako ez zira Santa Barbarar-i kofesatuko? Suhiltzalen patroina da. Edo Aguazil-en patroinari, Jondoni Mikel. Hola bi abokat izanen dituzu, Jondoni Petrik zeruko pasaana errefusatzen badauzu ere...

**ANTIKRISTO:** Ez niz abokat beharretan. Apez beharretan niz.

**BLANDINA:** Badakizia zer... Eskual Herriko ikusgarrietan, apeza burrustan ibiltzen da. Elizak gobernamenduarenak omen dira, bainan zinema salak eta antzerki-tokiak, apezenak dira. *(eskua begien gainean ezarriz so-egilen hobeki ikusteko)* Jesus. Hauxe da apezeria ikusten dutan! Erretor, bikario, kalonje, hemen berean kontzilio bat muntatzen ahal ginuke. Aita Saindu eta apezpikurik ez dut ahatik ikusten. Hantxet eko erretora. Penitentzia arinak emaiten dituelako fama du. Hura galdeginen dugu. *(taula gibelekoer mintzo)* Eta hik, Jean Pierre, oihal hori beheiti zak. Antikristok kofesatu behar dik.

Oihala

## IVgarren gertaldia

Joka kekua, lehenbiziko agerraldiarena. Ilunabarra da. Gaua eroriko da.

**I**

Kiriko bakarrik

**KIRIKO:** *(Taularen erdian jarria da, mahain bat bere aintzinean. Mahain gainean, miraila murrutik kendia. Bizarraren egiten ari da. Xukatzeko oihala lepo inguruan du. Mahain gainean bizar egiteko behar diren puska guziak eta ikuzteko untzia xaunarekin. Kadera baten gainean, radioa. Amodio kantu xahar bat aditzen da. Kiriko bere buruarekin mintzo da)*
A, Kiriko, Kiriko! Iñarak gibelerat jiten diren bezain segur, amodioa berriz pizten duk gizonaren bihotzean. Sindarekin zakurra eta gatua bezala beti gasailan ari, eta ez dakikalakotz nun den, hortxet ago ikaran! Gazte denborako bihotz-sua ari ote zaik berriz pizten, Kiriko? Gizona, xakur-umea iduri: emazten zaiak ondoan behar xuxen ibiltzeko. Senar-emazteak uros bizitzeko, etxean andreak behar dik kapitain eta auzoan soldado. Gizonak aldiz ostatuan otso eta etxen bildotx. Gaizo donadoak! Ez dute sekulan jakinen gure zorionaren berri: bizi guzia pasatzea, guk xuri erraiten dugularik beti beltx erraile batekin. Donadoaren saldak, gatz-biperrak eskas *(Ixtaño bat ixilik. Gero serios, mirailako Kirikori mintzo)* Baratxe, Kiriko, baratxe! Bizar egitean duk gizona gogoetatzen. Eta hire gogoetak ez dituk halaxet entraalekoak. Nahi ote huken Sindarik ez dadien gehiago agert? Txiranberroeneko nagusi nahi huke ene ustez! Oraikoan, barkatzen daiat, bainan

kasu! *(Mirailako itxura larderiatuz)* Hizan bezalako zirtzila! Bat batean, hire buruaren edertzeari lotu haiz. Zer uste duk ala, jadanik alargun hizala? Bihotxaren egiten hasi gogo huke, naski? Orrazta-adi, bizarra arraso ken zak. Bainan ez dituk bizkar gaineko urteak arinduko. Ahalgetu behar huke, hizan bezalakoa! Alargun izaiteaz uros, jauna! Zer xoria, hi, Kiriko!... Ene semea bahintz, zer mazelakoa behar huken bildu!...

## II

Kiriko eta Blandina

**BLANDINA:** *(bortatik)* Musika soinutan, mirailarekin eleketa! *(eriarekin eroaren keinua egiten du)* Agur, Kiriko gaizoa!

**KIRIKO:** Ez dakizu zonbat gaizoa! Arratsalde guzia etxean bakarrik. Gaua heldu, emaztea ez ageri. Alargun gelditzeko beldurrak, hertzeak korropilatuak dauzkit. Sartu, bakar bakarra lo egin behar, ofe haundi batean galdurik.

**BLANDINA:** *(hats-beherapenka)* Aspaldidanik badakit nik ofe hutsen berri.

**KIRIKO:** Alargunak, bortetako zerrapon idurirat eginak gira. Gakorik gabe, deusetako ez on.

**BLANDINA:** Alargunak, *gira*, erran duzu? Debria. Fite dituzu zuk harat-hunatak!

**KIRIKO:** Asmu tzar batek errausten nu. Bertzenaz ere errana da hemen *(sudurra erakusten du)* hatz delarik, norbait fite hilen dela. Egun goizean, uste nuen zinorri kafia bat banuela sudurrean. Gainerat, Txirrikitxuloko zakurra, saingatik ez da ixildu gau guzia.

**BLANDINA:** Hori bada zure beldur bakarra... Alargungoa, gizonentzat, eritasun senda errexa. Falta duten petatxia fite hatxemaiten dute.

**KIRIKO:** *(orraztatuz)* Egia aitortuko dauzut. Petatxua gogoan dut jadanik.

**KIRIKO:** *(begiak lurrera)* Hoin artoski orraztatu gabe ere fite hatxemanen duzu.

**KIRIKO:** *(beti orraztatuz)* Gizona ezkongai delarik da ontsa orraztatua izaiteaz griñatzen! Emazte bat hartu orduko, berdin zako itsas-buru batekin ibiltzea. Hahiz, emazteak berdintsu diren... Ezkont aintzinean, aztal luze batzuen gainean, purdia firirikan. Ezkont ondoan, espartinetan eta behi buztana iduri ile batzuekin.

**BLANDINA:** Nik dut beldurti izaiteko arrazoina. Erretor iloba ala alarguntsa, berdintsu. Eta orai, oseba nunbaitik ez bazaut agertzen, bietan alarguntsa. Gaixo ni. *(Mokanesa ateraz, nigarrez)* Zer bilakatu behar dut?

**KIRIKO:** *(bizkarrean zanpatuz)* Alo, Blandina, alo... Xuka eni nigar horiek! Erretor ilobak, hek falta dutelarik aise errexkiago ezkontzen dira.

**BLANDINA:** *(nigarra xukatuz)* Musika horren falta da... Barne guzia iluntzen daut... eta halako zer bat emaiten... amodiotan banintz bezala.

**KIRIKO:** Ba ta eni ere... Itzaltzea hobe ote dutan *(radioa hetsiz)*

**BLANDINA:** Kaiolan preso dagon xoria iduri dut... Kaiolako xoria, kanpo zabalak izitzen...

**KIRIKO:** So egizu, Blandina. Sinda eta erretora ez badira gehiago agertzen, zerbait eginen dugu bien elgar kontsolatzeko. Karitatezko obra bat izanen da.

**BLANDINA:** Ez eni otoi proposa burua gora onartzen ahal ez dutanik. Nahiago dut, sekula sekulorun sekulakotz, iloba gelditu, izanik ere Antikristoren iloba!

**KIRIKO:** Gure adinean, Blandina, eritasun mota horrendako ez da erremedio bat baizik: ezkontzea!

**BLANDINA:** *(jauzian)* Ezkontzea, diozu? *(xutituz, durduzatua)* Boltsa txar bat ukaiter dut zu zirela medio.

**KIRIKO:** Ez niz gaizki mlntzo. Ezteiak aipatzen dauzkizut eta ez ehorzketak.

**BLANDINA:** Gaizki mintzo, zu? Ez, ez, araiz, ene bihotzeko Kiriko. Zure alderat izan dut beti ene gisako bolera. Sindarekin ezkondu zinelarik, zazpi egun egona niz nigarrez begiak errerik. Ikusiko duzu zoin uros izanen ziren enekin. Aitortu nahi baduzu segurik, Sindarekin xantxa-mariak ikusiak dituzu, he, zuk.

**KIRIKO:** Ez zitela, otoi, Sinda zendua balitz bezala mintza oraino!

**BLANDINA:** *(eskuin eta ezker kurri)* Ni, Txiranberroeneko etxekandere! Norbait izanen nizala ordian! Andere haundi, gainetik behera so eginen dut jende xeheari, eta ez petak goiti, erretor iloba xume batek egin behar duen bezala. Hemehn salun bat muntatuko dut, dena miraila. Leiotan erridau zingolatu batzu, lurrean tapiza haztun bat. A! Piano bat ere ukanen dugu, nehork ez baitu oraino herrian. Eta hernen, nik ez dut desordrerik nahi. Zure ganbaran beharko duzu bizarra egin eta ez hemen.

**KIRIKO:** He! Jadanik manatzen hasia?

**BLANDINA:** Zer apentzia! Senarraren nahikunde gordenen obratzea, ez da manatzea bainan obeditzea. Ez dakizu oraino hori? Eta... noiz ezkontzen gira?

**KIRIKO:** Emeki, emeki. Nik ez dauzut aipatu izaiten ahal litaikena baizik. Behia erdi gabe, aratxea ez ditake sal. Mementoko, hobe duzu pianorik ez erostea. Ezkontzeko gutizia, eta senar-gai bat eskupean izaitea, biga dira.

**BLANDINA:** Pianoa aipatua nuen bikarioaren gatik. Maite du musika joitea.

**KIRIKO:** Hura ere penetan ditake, erretora galdurik.

**BLANDINA:** Ez zuk uste duzun bezain. Ezpeletatik gibelerakoan jakin du berria. Lehenik, zainak altxatu zaizko. Gure artean dagola, harek ere garizuma denboran pipa uzten du... Bainan gero alegrantzietan sartu da. Pentsa! Parropiako buru, zonbait egunez bakarrik balinbada ere. Eta behar zituela elizako kaderak kendu eta alkiak ezarri. Beneditano bat behar zuela ekar-arazi, nexkato gazter kantuen erakusteko; Apeztegian mainatzeko lekua behar zuela muntatu; eta nik ez dakit zer bertzerik!

**KIRIKO:** Zaurien sendagailua, beti emaiten omen du Jainkoak...

**BLANDINA:** *(hats-beherapenka)* Giren baino gehiago girelako ilusimendia, ba, emaiten du...

## III

Kiriko, Blandina, Martzelino

**MARTZELINO:** *(Makila eskuan, klerona bizkarrean trebes)* Arratsalde on, Kiriko eta konpainia...

**BLANDINA:** Bai zuri ere, Martzelino.

**KIRIKO:** Agur, jaun kontseilukoa.

**MARTZELINO:** Kontseilukoa, bakarrik? Ez dakit, ahatik... Jaun mera airatu zauku, naski...

**KIRIKO:** Jaun mera ere? Erretora bezala?

**BLANDINA:** *(kontent)* Eta Sinda bezala. Gaizo Kiriko, erdi alargun dugu.

**MARTZELINO:** Mera airatua, axuranta ere ba. Beraz, ni naiz mera, gisan den bezala. Ondar bozetan, boza gehiena nik bildia dut, alabainan...

**KIRIKO:** Nik ere zuretzat bozkatu nuen. Beti erran dut, ahal haundiko mutiko plantako bat zinela. *(fotila erakutsiz)* Jar zite hementxet...

**BLANDINA:** Hauxe da aldakuntza, bat batean, herrian! Kontseilukoa mera, bikarioa erretor, Kiriko Txiranberroeneko nagusi eta ni...

**KIRIKO:** Blandina, aho hetsian ez da ulirik sartzen...

**BLANDINA:** *(beretako mintzo)* Ilusioneak, altxalilien pare inguruan dabiltza amodioa sekulan ezagutu ez duenaren inguruan. Amodioa ezagutu ez duenaren ilusioneak, larrazkenean hostoak bezala airatzen.

**KIRIKO:** Suprefetaren semea dela, mutiko pixtolet bat badabila herrian. Sinda harekin joana ditake.

**MARTZELINO:** Nik ontsa konprenitua balinbadut segurik, jaun mera ere ba...

**BLANDINA:** Otto apeza ere ba... Arraintzako kanabera harturik joana da.

**MARTZELINO:** Jaun merak ere hartua du, emazteak dionaz.

**KIRIKO:** Xipa arraintzan ibiltzen dutan zalabarda hartua du berriz Sindak.

**BLANDINA:** Ez dira bederen ito? *(kontent)* Sindak segurik ez zakien igerika.
**KIRIKO:** *(buruan hazka)* Nik ez dakit zer pentsa! Ez dakit! Sorginkeria zerbait bada hor, ene gostuko.
**BLANDINA:** Hain bertze bitxikeria gertatzen da bizian! Gertatzen direlarik ezin sinetsiz egoiten gira, gezurrak balira bezala.
**MARTZELINO:** Egiaren erraiteko, mutiko horren manerak es zauzkit batere gustatzen. Goizean, telephonaz mintzatia niz Suprefeturarekin.
**KIRIKO:** Zerbait jakin duzu?
**MARTZELINO:** Ba; Suprefetak ez duela semerik... Alabak bakarrik.
**BLANDINA:** Pollitak gira ori seme baten ukaiteko gai ez den Suprefet batekin! Nik, igorriko,diot mutitxiki belarra. Hartarik hartu eta, dotzena erdi bat seme ukanen ditu, bat bertzearen ondotik...
**KIRIKO:** Nor mila debru da beraz Galtzagorri?
**MARTZELINO:** Hori, mixterio printzipala.
**BLANDINA:** Bada Suprefetaren semea galtza gorritan, debrua ditake.
**KIRIKO:** Hotz hunekin debrua ifernutik aterako dela? Ez diat ba uste!
**BLANDINA:** Goizean, bi mutiko gazteren bisita ukan du erretorak. Frango bortizki mintzatu dira elgarrekin. Jainkoak barka dezautala, borta gibeletik denak entzuten nituen. Azkenean, samurturik, mutiko gazte hetarik batek erran dio: «Eta zu, jaun erretora, debruak ereman zaitzala!» Handik laster, Galtzagorri agertu da eta oseba harekin partitu...
**KIRIKO:** Norbaiti «debruak ereman zaitzala» erraitea, bekatu haundia. Are gehiago apez bati erraiten delarik.
**BLANDINA:** Sindak erran dautanaz, zuk ere hari gauza bera erran diozu.
**KIRIKO:** *(pentsaketa)* To! Egia! Batere gaxtakeriarik gabe erran diot, ahatik. Senar-emazteen artean, holako bat erraiten da, ori, pataxkaldietan.
**MARTZELINO:** Ontsa pentsatu eta, goizean Ulaliren aintzinean jaun merarekin hizkatu nizalarik, nik hori bera atera diot: debruak ereman zaitzala!
**KIRIKO:** Jauntto horrekin irri guti! Debruarekin irauleen ari denak behar dik akilua luze!
**BLANDINA:** Galtzagorri pasatu eta, sofre usain bat bazen etxe guzian.
**MARTZELINO:** Ulalik gauza bera erran daut.
**KIRIKO:** Gure etxean ere mota bereko usaina senditu dut.
**MARTZELINO:** *(xutituz)* Bon. Ni orai, herriko mera niz. Eta ez dezaket ameti ene herrian jendea hola leku dadien. Ihiztarier manatu diotet mendiz-mendi ibiltzea. Beti-Gazte batasuneko gazteak zoko-moko guzien miatzerat igorriak ditut. Ene klerona turrutaren beha daude abiatzeko. Galtzagorri hatxemaiten duenak, makil ukaldika mutil dantza bat ona dantzarazteko manua du. Ifernurat itzultzen delarik, Barrabas eta konpainiari, Nafarroko dantzen berri emaiten ahalko du...
**KIRIKO:** *(xutituz)* Biba zu, Martzellno. Bizi guziko mera izendatuko zaitugu.
**MARTZELINO:** *(makila altxatuz)* Aintzindari on batean lekuua, gudularien lehen lerroan da. Banoa.
**KIRIKO:** *(murrutik harma hartuz)* Hil edo bizi, ni ere heldu niz zurekin.
**BLANDINA:** Kiriko gaizoa, zure eginbidea lehen! Txiranberroenea esku onetan izanen da, zuek ifernuko puiesak bentzutzeko artean *(Kiriko eta Martzelino ateratzen dira)*

## IV

Blandina - Senda

Blandina, bakarrik, hasten da, barnearen arranjatzen. Mahia eta kadera murruari kontra ezartzen ditu. Bizar egiteko puskak harmairian sartzen. Miraila hartzen du eta kadera baten gainetik murruan dilindan ezartzen bere lekuan. Ondoan bada Sinda eta Kirikoren espos potreta. Herrautsa xukatu eta hari so dago, gogoetatua.

**SENDA:** *(eskuinetik sartzen da, brodatzeko puskak eskuan)* Zimino dantzetan hasia zirea, Blandina?
**BLANDINA:** *(herrauts kentzeko oialarekin begiak xukatuz)* Noiz ikusi dituzu zimino-dantzariak nigarrez?
**SENDA:** Nigar egiteko, kadera baten gainerat behar duzu igan, zuk?
**BLANDINA:** Emaztearen sortea nun nahi nigar egitea. A! Nigarrak bezain aise eskupean bagintu nahi ditugun guziak! Osebak ardura erraiten daut: emaztearen indarra, nigarra... Nik, gauza bakar bat segurtatzen dut nigarrekin: mokanesaren zikintzea.
**SENDA:** Orai, zendako ari zira nigarrez?
**BLANDINA:** Nigarra begietarik jalgi zaut nihaurek ez dakitala. Xifritua nago. Herrian gertatzen direnetaz, ez ote niz hobendun?
**SENDA:** Sobera jite ona duzu makurraren egiteko.
**BLANDINA:** Betidanik, nihaurek ez dakitala, gezur zonbait eskapatzen zaut. Bekaizti aireño bat ere badut artetan. Zure amaz, arrunt gogoetatua nago.
**SENDA:** Ez zitela haren gatik kexa. Nunbaitik agertuko da. Haren suntsitzeko, lur-ikara izigarri zonbait behar litaike. Eta aita, bakantza beharretan zen.
**BLANDINA:** Zure aita bezalako gizon onik, ez dut ezagutzen.
**SENDA:** Jite oneko senarrek egiten dituzte emazte gaixtoak. Artetan, zanpaldi batzu onak behar dituzte zonbait emaztek zeruko bideari lotzeko.
**BLANDINA:** Zure aitak bihotza eskuan du. Ez da emazte bati zaflako baten emaiteko gizon.
**SENDA:** Bihotz baten ebastea norbaiti, ez duzu uste bekatu dela, Blandina.
**BLANDINA:** Bekatu hori nehork ez du kofesatzen *(nigarrez hasten da)*
**SENDA:** Berriz ere nigarrez?
**BLANDINA:** Galtzagorri-ri pentsatu eta bihotza erdiratzen zaut. Ihizi basa bat bezala behar dute garbitu. Klerona joiten aditzen baduzu, kasu. Hatxemaiteko ponduan izanen dira eta gero, gloria patri eta filio, gure gatuak txilio.
**SENDA:** Ihiztariek baino lehen bil nezake nik Galtzagorri. Uste dute indarka, zer nahi egin ditaikela. Ez dakite ezti-eztia jokatuz, aise gehiago ardiets ditaikela.
**BLANDINA:** Banoa horraxetaraino. Zer pasatzen den behar dut ikusi. Gero, elizaraino joanen niz. Otoitza, horra emazten indar bakarra. *(badoa)*

## V

Senda - Galtzagorri

Senda kadera ttipian jarririk, brodatzen hasten da. Radioa piztu du, kitara soinu ezti bat entzuten da. Iduri du musika horrek neurkatzen dituela orrats ukaldiak.

**GALTZAGORRI:** *(eskoineko bortatik burua pasatuz, eria ezpainen gainean)* Txit!
**SENDA:** *(jauzian)* Oi, ama! *(musika hiltzen du)*
**GALTZAGORRI:** Azken hatsetan den gizon bati, atea ez duzu hetsiko?
**SENDA:** Nundik sartu zira?
**GALTZAGORRI:** Baratzetik. Behitegiko bidea ezagutzen dut.
**SENDA:** Galtzagorri?
**GALTZAGORRI:** Hola deitzen nute galtza hok soinean ditudalarik.
**SENDA:** Herrian pasatzen diren debrukerien egilea, zu zirea?
**GALTZAGORRI:** Adinetako jendek, debrukeriak deitzen dituzte gaztek egiten dituzten gauzak eta berek egiten ahal ez dituztenak. Adinarekin bakarrik da debrutzen gizona, bizian ikasiekin.
**SENDA:** Ez ote zira sobera tarrapatari Suprefetaren semea izaiteko?
**GALTZAGORRI:** Ni, Suprefetaren semea? Ha, ha, ha! Holakorik oraino! Ene aita, Eskual

Herriko kontraandixt haundienetarik da.

**SENDA:** Eskualduna?

**GALTZAGORRI:** Errotik. Has eta pok. Odolez, urguluz betea den arraza hortarik naiz. Alta, ez ginuke ez urgulutsu agertzeko arrazoinik...

**SENDA:** Nun bizi zira?

**GALTZAGORRI:** Hango jendeak dionaz, zeruari hurbil den hiri batean: Baionan. Hango gazteriaren lili hautuzkoetarik naiz-. Pentsa! Lehen maileko rubilarietarik...

**SENDA:** Izar baten eskasa ginuen etxean... Zerukoak aski ez zirela...

**GALTZAGORRI:** Zuri eman behar zerbait ere banuen *(orratz-untzi emaiten dio)*

**SENDA:** Ene orratz-untzia! Ez dakizu behar bada zuretzat hau lanjerosa dela?

**GALTZAGORRI:** Emazte bat maite delarik, Galtzagorrien presondegia izaiten ahal omen da orratz-untzia...

**SENDA:** Errana da ere, orratz-untzi bat duelarik., emazte batek ez duela nola nahi galtzen burua.

**GALTZAGORRI:** Ez dela amodiotan sartzen erran nahi duzu? Beraz, zuk, ez duzu gizon-gai-ik?

**SENDA:** Bat badut bihollzean. Ez dakit nor den. Ezagutu arte, ez dut gizon-gai tirriarik.

**GALTZAGORRI:** Nik, ezagutzen zaitut. Behin edo bertze ikusia zitut eta geroztik, bertzerik ez dut gogoan. Herriz-herri ibili naiz zure bila eta egun, hortakotz niz hemen.

**SENDA:** Hazparnen gertatu ixtorio bat behar dauzut kondatu.

**GALTZAGORRI:** Hazparneko ixtorioa? Kasu... Hazparnen zer nahi pasatzen da. Zapatak bezain segur, errusumen geroa han da egiten. Bainan, ba, erradazu zure ixtorioa.

**SENDA:** Igande-ihaut zen. Ostatu batean, mutiko eta neska andana bat bazkaiten ari. Ondoko mahi batean, ezagutzen ez gintuen mutiko multzo bat. Bazkal ondoan, omorea on, bainan zangoak ez segur, behien aintzinean lasterka ibiltzeko. Bat bazen Krixpin zuena izena. Adar ukaldian, behi batek kolpatu zuen zangoan.

**GALTZAGORRI:** Behi harek «Juanita» zuen izena. Gaizo Krixpin! Bere mozkorrean ez zakien sobera zer gertatzen zitzaion. Bainan ez du sekula ahantzi hartaz arta hartu zuen nexkato gazte pollita...

**SENDA:** Hola doa bizia. Egun, berriz ere, Krixpin nexkato haren beharretan...

**GALTZAGORRI:** *(amodioz beterik)* Egun bat ez ote da jinen, Krispinek bizi guziko zure laguntza galdeginen duena?

*(urrunerat aditzen da «Jeiki, jeiki» kleronan joa)*

**GALTZAGORRI:** *(harritua)* Zer da hori?

**SENDA:** Ihiztariek Galtzagorri hatxeman urran dutelako seinalea.

**GALTZAGORRI:** Eta hatxemaiten badute?

**SENDA:** Hazparneko behiak ez bezalako kolpea eginen dauzute *(eskutik hartuz)* Txauri, Krixpin, txauri *(harmairiari buruz derama)*

**GALTZAGORRI:** Norat neramazu?

**SENDA:** Harmairuaren barnerat. Alabainan ez zitut orratz-untzian sartzen ahal.

**GALTZAGORRI:** Segurrean izanen niz barne hortan?

**SENDA:** Norbaitek ebats beldurrez, emaztek badakite maite dutenaren leku segurrean ezartzen.

**GALTZAGORRI:** Gordetzen nuzu ala preso ezartzen?

**SENDA:** Zure gibeletik dabiltzanen bidetik kentzen... bainan hobeki neretzeko.

**GALTZAGORRI:** *(Sendaren eskua ezpainetarik hurbilduz)* Permisionerik ez dauzut galdatzen...

**SENDA:** Ene eskua zure izanen da aitari galdegiten duzularik.

**GALTZAGORRI:** *(eskuan musu emanez.)* Harmairutik atera bezain fite *(harmairuan sartzen da. Sendak gakatzen du, gakoa sakelan ezartzen. Kadera ttipian jartzen da, berriz brodatzen hasten)*

**GALTZAGORRI:** *(harmairu barneti)* Hauxe da naftalina usaina. Mita txar bat bezala hementxet ito behar dut.

**SENDA:** *(kantuz eztiki)*

Buba, ñiñaño

Haurra dugu ñimiño
Ñimiño eta gaixtoño
eta bubaño

## VI
Senda eta Ulali

Ulali sartzen da panpinaturik, xapela buruan, eskularruetan, paisola eskuan.

**SENDA:** Zoin ontsa emana ziren, Uiali! Karamantxinai-eneko prinzesa iduri duzu.
**ULALI:** *(mirailatuz)* Nola hatxemaiten duzu ene xapel berria? Donapaleun erosia dut. Ene gostuko, moda ixtoriotan, Baionari nagusi da. Donapaleu. Luma berde hau, Tahitiko Indio-perruket batena oman da. Beltxa berriz, ruso-arrano batena. Mutturreko ttitta gorri hortarik ezagutzen omen da.
**SENDA:** Jakinki herrian zer pasatzen den eta, ez dakit ez ote ziren soberaxko panpinatia.
**ULALI:** Bainan, gaixo haurra, ni bozkariotan niz! Suprefetaren semeari aipatu diot ene ostatuaren haunditzea. Haren ustez, hea Suprefetak eni sosaren maileatzea onart lezaken galdegin diot. Baietz ba, segur ere, galdegiteko! Kontentarekin, besta egunetan bezala beztitu niz. Zer mutiko pollit eta laketa! Segur niz ez duela, bere inguruan, emazte eskasik.
**SENDA:** Emazte gai-ik ba ote du?
**ULALI:** Ez bat, ez, bainan, hamar segurik. Bertzenaz ere kostatar mutiko horiek, fama gaitzekoak dira. Oilarrak oilategian bezala: Hau maite dut, hura ere ba. Jakin dutanaz, Galtzagorri, Miarritzen ibiltzen diren hetarik da. Eta han, Afrikako beltzen pare, gizonak bizpahiru emazterekin bizi omen dira. Giristinoak direla diote, bainan mahometanoen bizi moldeak dituzte. Segur niz gure xoriak ere baduela kafia bat baino gehiago.
**GALTZAGORRI:** *(boza lutho batekin)* Gezurra da.
*(Ulali, oihula, harat-hunat dabila)*
**SENDA:** *(hari buruz joanki)* Emaztea, zer gertatzen zauzu?
**ULALI:** Zer gertatzen zautan! Ez duzu deus aditu?
**SENDA:** Zerbait aditu, nik?
**ULALI:** Harmairia mintzatu da!
**SENDA:** Alo, alo, gaixo Ulali. Burutik zerbait pasatu zauzu? Nik ez dut deus aditu.
**ULALI:** Ez duzu aditu harmairia gezurra dutala erraiten?
**SENDA:** Aments egin dukezu. Ezti zite, eta jar zite hementxet goxoki.
**ULALI:** Aise mintzo zira zu... Kaderak, behar bada, dantzan hasiko dira.
**SENDA:** Xaminiatik sorginak sartuz geroz, zer nahi gertatzen ahal...
**ULALI:** Oraiko egunean gertatzen ez denik ez da. Hola segituz, denak erotegian finitu beharrak gira.
**SENDA:** Suprefetaren semea pasatuz geroz, herria gainekoz behera jarria da. Ene eskuperat erortzen bada, lukainkak sotoan bezala preso ezartzen dut. Ikusiko du orduan Miarritzerat joaiteko gutiziarik ukanen duen...
**ULALI:** Nik segurik ez dut gehiago egon nahi harmairiak mintzatzen diren etxe batean. Ikus artio, Senda *(badoa)*

## VII
Senda - Galtzagorri

Senda xutitzen da brau-ean eta, samurturik, ukumiloaz kaskaka hasten harmairuari.

**GALTZAGORRI:** Aintzina.
**SENDA:** Jostagura zirea, pollita!
**GALTZAGORRI:** Ez dituzu, araiz, emazte horrek erranak sinesten?
**SENDA:** Zu baino segurrago sinesten dut hori. Gizonen errana ala xerri buztanaren itzala, berdintsu!
**GALTZAGORRI:** Bazinaki zonbait maite zitudan!
**SENDA:** Aho-xurietan ez dut fidantziarik!
**GALTZAGORRI:** Ene bihotzean, zu zira bakar-bakarra.
**SENDA:** Dituzun emazte-gai guziekin, nahi nuke jakin nun duzun ene lekua.
**GALTZAGORRI:** Egia erranen dauzut, Senda. Emazte-gai bat bakarrik ukan dut ene bizian. Eta hura ere, ba eta ez.
**SENDA:** Nola zuen izena?
**GALTZAGORRI:** Margaita.
**SENDA:** Margaita, Margaita... izen horrek ez daut erraiten nor zen...
**GALTZAGORRI:** Erraiten badauzut, ez duzu sinetsiko... Suprefetaren alaba...
**SENDA:** Noren alaba?
**GALTZAGORRI:** Su-pre-fe-ta-re-na.
**SENDA:** Noiz mila debru utziko gaitu bakean, Suprefet horrek? Punitzeko, naftalinan hilabete bat atxikiko zitut.
**GALTZAGORRI:** Hanbat gaixto zuretako. Hilabete bat pasatzen badut hemen, ezkont arratsean trenpu tzarra ukanen dut...
**SENDA:** Zaude ixilik, ausart tzarra... Zaude, xantxa-mariak ikusi behar dituzu hordik ateratzean.

## VIII

Senda - Blandina

**BLANDINA:** *(bortatik)* Zer zira, harmairuarekin mintzo, zu berriz? Zu ere, gaineko kaxola hortarik airatzen hasia?
**SENDA:** Zer duzu, gaixo Blandina.
**BLANDINA:** Elizan sartu nahi izan dut. Zango batean ezartzeko lekurik ez dut hatxeman. Herriko emazte guziak han izan behar dira. Denak batean mintzo, erlume bat iduri zuen eliza-barneak. Hemengo berriak, Erantzia guzian hedatuak omen dira. Radioak eman beharrak omen ditu xehetasunak. Heien aditzerat jina niz.
**SENDA:** Sar zite. Zertsu den, ikusiko dugu berehala *(radioa pizten du) (edozoin musika entzuten da)*
**BLANDINA:** Frantzia guzia hor izan behar da, aiduru, de Gaulle mintzatzen delarik bezala. Gutienik maite dituzten gauzeri dira Frantsesak gehienik intresatzen.
**RADIOA:** Bi gertakari aipatuko ditugu bereziki. Honduras erresuman, Etxebarrioste kolonela buru, jazartze bat izan da, Barrigoverde presidentaren kontra. Nehork ez daki xuxen zer pasatzen den. Barrigoverde jeneralak dio Etxebarrioste tirokatua duela. Etxebarriostek, bere aldetik, jakin-arazia du harek duela Barrigoverde hil-arazia. Geroak emanen dauku behar bada argimen zerbait.
Bigarren gertakari aipagarria, gutarik hurbilago gertatua da. Eskual Herriko herrixka ttipi batean, ezin konprenituzko jende faltatzeak gertatu dira. Huna zer dion gure Baionako berriketariak: «Bere burua Suprefetaren semetzat pasarazten duen mutiko gazte bat herrian agertuz geroz, Mera, Erretora eta bere axuranta —herriko emazterik aipatuena— faltatu dira. Nehork ez daki nun diren. Beti Naste batasuneko gazteak zoko-moko guzien miatzen ari dira. Oraino, ez dute deus hatxemanik. Mutiko gazte hura galtza gorritan da eta sofre usaina uzten du pasatu lekuetan. Zonbaitzuek diote debrua dela. Basses Pyrénées guziko jandarmeri parte emana da eta elikopterak apailatzen ari dira gizonen

llauzkatzeko. Hemen Baiona, zuri Parise.

**SENDA:** *(radioa itzaliz)* Gure gaztek eginen duten sudurra! Beti-Naste deitu dituzte, Beti-Gazte-ren orde.

**BLANDINA:** Gure herriaren famak, denetan hedatu behar du. Uda huntan, ez dugu kanpotiar eskasik ukanen.

**SENDA:** Ulalik erosten ahalko du itzal haundiko xapel bat eta bere ostatua haunditzen ahalko du.

**BLANDINA:** Adi-zazu nik erraiten dauzutana, Senda: Lourdes aipatua izan da Andre dena Mariaren agertzen gatik. Gure herria aipatua izanen da jende faltatzen gatik.

## IX

Senda, Blandina, Antikristo

Su-hiltzale kaska buruan, alguazil-ez bezti, sartzen da Antikristo.

**ANTIKRISTO:** *(Harma, sabrea eta aizkora eskuetan, boza ezti batekin)* Ave Maria Purisima.

**SENDA:** *(harritua)* Zer, herriko eretikoa, otoitzean?

**BLANDINA:** Ezin sinetsia, Senda. Antikristo, Jainkoarekin baketu zauku.

**SENDA:** Jainkoa zorionetan ditaike.

**ANTIKRISTO:** Jondoni Paulo bezala niz. Zerutikako boza bat entzun dut eta, raust, ez bat ez bida, katoliko, apostoliko eta erromano bilakatu niz.

**BLANDINA:** Azeriak ilea uzten du bainan ez sekulan aztura.

**SENDA:** Azeriak kaskoina delarik, bietan.

**ANTIKRISTO:** Hemendik aintzina, ez da Antikristorik. Quintiliano, ene izenetik deituko nuzue.

**SENDA:** Jakiten ahal duguia nun zabiltzan muntadura hortan?

**ANTIKRISTO:** Justiziaren ordaina niz.

**BLANDINA:** He! Biltzen dituzun zama guziekin, zu, justiziaren ordain? Ontsa izaiteko manera dugu. Quintiliano funtsezko bat izaiten bazina bederen...

**ANTIKRISTO:** Enekin hola mintza sari, biak preso ezarriko zituztet, Jainkoak nahi badu.

**SENDA:** Jainkoaren ohoratzeko manera hitzak, horiek. Jainkoak ez du holakorik nahi.

**BLANDINA:** Ez bazira ixiltzen eta Jainkoak nahi badu, zaflako bat ona emanen dauzut.

**ANTIKRISTO:** Lagun protximoa hola maitatzen duzu?

**BLANDINA:** Aski zinuen ez giristinotzea. Orai, gutarik zira, Quintiliano jauna.

## X

Senda - Blandina -Antikristo - Kiriko

**KIRIKO:** *(bortatik)* Nor debru duzue Quintiliano?

**ANTIKRISTO:** Ouintiliano, ni naiz, Jainkoari esker.

**BLANDINA:** Jainkoa bakean utziko duzu, eni. Lehen ez zinuen aipatzea ere nahi eta orai, ahopaldi guzietan, bertzerik ez duzu.

**SENDA:** Zerutikako bozak aditu omen ditu. Glristino dela eta bere izenaz behar omen da deitu.

**KIRIKO:** *(buruari loturik)* Bertze zurru-murru bat! So egizak, Quintiliano ala debru, hik eta nik, etxe hau gainetik behera behar diagu miatu. Galtzagorri hemen gordea omen duk.

**BLANDINA:** *(harritua)* Hemen? Ai, ei, ama!

**KIRIKO:** Hatxemaiten badugu, buluz-gorrian ezarri eta tinda gorriz gorputz guzia pasatuko dakeagu. Bi adar eta buztan bat ezarri eta Miarritzeko plaia gainerat aurtikiko diagu aireko-paisolaz.
*(harmairutik xilintxak aditzen dira)*

**BLANDINA:** *(oihuka)* Xilintxak! Aditzen dituzue? Xilintxak!
**SENDA:** Hara bertzea, orai berriz. Ez zirea hobeki, ez...
**BLANDINA:** Segur niz xilintxak aditu ditudala. Xaminiatik edo alde hortarik heldu ziren.
**ANTIKRISTO:** Xilintxak zure buruan ote diren, ni beldur, Blandina.
**BLANDINA:** Zuk, ixilik egoiteko pagatua zira. Buruan duzun tupina horrekin, nahi nuke jakin zer aditzen duzun.
**KIRIKO:** Hunek, zerutikako bozak; harek ximiniako xilintxak; Ulali denetan kondari harmairu bat mintzatzen aditu duela. Denek behar dugu, denek, burua galdu herri madarikatu huntan!

## XI

Lehengoak, Martzelino eta Ulali

**MARTZELINO:** *(sartuz)* Etxearen lau kantoinetan, zainlariak ezarri ditut. Hobenduna ez da eskapatzen ahalko. Zu, Alguazil, zoazi teilatura, sekula ximiniatik eskapatu nahi balu ere...
**ANTIKRISTO:** Nik, nagusiari bakarrik obeditzen dut. Ene nagusia, jaun mera.
**MARTZELINO:** Jaun mera airatua baita, ni nuk haren ordaina.
**ANTIKRISTO:** Hori Suprefetak erran behar du eta ez zuk.
**MARTZELINO:** Nik errana ez baduk egiten, kargua kentzen daiat: ez hiz gehiago ez alguazil, ez su-hiltzale izanen.
**ANTIKRISTO:** *(garde à vous)* Zure zerbitzuko, jaun mera *(badoa)*
**BLANDINA:** *(Martzelinori)* Zer kariaz manatzen duzu zuk hemen?
**KIRIKO:** Egia ori, zuk, Blandina. Ni naiz Txiranberroeneko nagusia.
**MARTZELINO:** Txiranberroenean, beti danik, Sindak manatu du eta ez zuk.
**BLANDINA:** Sinda faltatuz geroz, Kirikok ditu etxe huntako gidak. Berriz ezkondu artio segurik.
**SENDA:** *(Martzelinori)* Jakiten ahal duguia zer ari ziren hemen?
**MARTZELINO:** Galtzagorriren hatxemaiterat jina niz.
**SENDA:** Galtzagorri? Nor da hura?
**MARTZELINO:** Suprefetaren semea.
**BLANDINA:** Suprefetaren semea, ba. Debrua, errazu, izaitekotz.
**SENDA:** Debrua balitz, ez litaike gizon bat bezala engana.
**MARTZELINO:** Nola hori?
**SENDA:** Nik egin dutan bezala. Jin delarik, bakarrik nintzan. Abusatu dut eta orratz-untzian sartu.
**MARTZELINO:** Orratz-untzian? Kasu egizu, Senda. Ez dut ametituko jaun meraz trufa ziten.
**KIRIKO:** *(buruari loturik)* Jesus! Jesus! Orai berriz, gizon bat orratz-untzian! Alabak ere burua galdu daut!
**BLANDINA:** Gaixo Senda! Beti amentsetan! Nahikeria eta hala dena ez baitira ordia gauza bera!
**SENDA:** Ezagutu baino lehen, guk, emaztek, asmatzen dugu nolakoa izanen den maitatuko duguna.
**BLANDINA:** Bertzela ere gertatzen da. Begia eder eta gorputza lerden duen mutiko gazte bati pentsa eta gizon oker, zahar, maingu batekin ezkont.
**SENDA:** Ez duzue sinetsi nahi Galtzagorri preso ezarria dutala?
**MARTZELINO:** Senda, otoi, haurkeriak utz bazterrerat. Ez gira jostagura .
**KIRIKO:** *(alabaren eskua hartuz)* Ezti zite, haurra, ezti zite. Zainak altxatuak dituzu. Etzaterat joan behar duzu. Gau on bat pasatu eta biharko, denak ahantziak izanen dituzu.
**SENDA:** Zainak ez ditut altxatuak, zentzuz ontsa niz eta ez dut gezur erraiteko usaiarik. Galtzagorriren boza entzun araziko dauzuet.

**ULALI:** *(sartuz)* Ixtorio mixtorio, orai ere?
**BLANDINA:** Hauxe da beldurra!
**MARTZELINO:** Xerritegiko bortz urdeak pariatzen ditut deus ez dela.
**SENDA:** Ontsa da. Ikusiko duzue *(gora)*; buru-gogor andana hunek sinets nezan, galdegiten dauzut...!
*(orduan aditzen da izigarriko arramantza bat. Khe herrauts eta pindarren erdian, gizon bat erortzen da xaminiatik. Lurrean zabal zabala dago. Denak harriturik, daude. Ulali oihuka, Blandina belauniko otoitzean, Senda kadera batean jarririk. Lehen harrialdura pasatu eta, Kiriko eta Marzelino bere baitaratzen dira, eta; barnearen erdirat tiraka ekartzen dute xaminiatik erori gorputza. Hau, kerradaz beltz beltza egina da)*
**BLANDINA:** *(oihuka)* Satan! Satan beltza!
**ULALI:** Lucifer! Lucifer!
*(Antikristo da, aizkora bi parte egina, ezpata plegatua, buruko kaska dena adar eta zilo. Kirikok eta Martzelinok inarrosten dute, bizpahiru zarta emaiten, eta Antikristo berebaitaratzen da. Sendak, harmairutik harturik botoila eta baso bat; edaterat eskaintzen dio)*
**KIRIKO:** Tragoño batek on eginen dauk *(Antikristo denetarat so dago, harritua)*
**MARTZELINO:** *(basoa hurbilduz)* Edan zak, mutikoa, edan zak. *(Edateko orde, Antikristok ufakoan dena ixurtzen du)*
**GALTZAGORRI:** *(harmairu gainetik burua ateraz)* Zer pasatzen da? *(berriz ere, denak ikaretan dira. Antikristo ere xutitzen da eta ezpatari lotzen)*
**MARTZELINO:** *(Galtzagorri-ri)* Errak to, jakiten ahal duguia nor hizan?
**GALTZAGORRI:** Nor nizan? Nor nahi duzu izan nadien? Galtzagorri...
**KIRIKO:** Zer ari hiz harmairu horren barnean?
**GALTZAGORRI:** Norbaitek borta ideki beha nago...
**SENDA:** Sinetsiko nuzue, orai? Nik galdegin orduko, panpabiltxi bat bezala agertu da.
**ULALI:** *(Antikristoren bisaia garbitzen ari da trapu batekin)* Panpabitxiaz zirea kexu... Mutiko hunen planta ez duzia ikusten...
**ANTIKRISTO:** *(nekez mintzo)* Norbait ba ote zen ximinia barnean gordea, gainetik so egin dut. Bainan buruko kaskaren pizuak, beheiti tiratu nu.
**ULALI:** Eta firiri-firiri deus, senditu gabe hementxetarat erori.
**ANTIKRISTO:** Deus senditu gabe. Errazu uste duzula. Zazpi kosta-hezur segurik baditut hautsiak. Hatsaren hartzeko mekanikeria guzia xintxirikatua dut.
**BLANDINA:** *(edaterat emanez)* Gaizo Quintiliano. Lan ontsa egina, ardura gaizki pagatua.
**ANTIKRISTO:** Ez ahal dut hori konberti saria...
**GALTZAGORRI:** *(Martzelinori)* Zu, nor zitugu, denen manatzale?
**MARTZELINO:** Nor nizan? Jaun mera.
**GALTZAGORRI:** Goizean, jaun mera elekatu dut. Ez dut uste zu zinen. Gezurra erran sari, zuk behar zinuke harmairu barnean preso.
**KIRIKO:** Barkamendurekin, zure kanpotiar sudur zikina ez zazula gure aferetan sar.
**ULALI:** Hemen, kanpotiarrek, udan dute bakarrik pleñitzeko dretxoa.
**BLANDINA:** Ba. Eta heien auhenak oxenago eta kondua gaziago.
**MARTZELINO:** Behar ditut gazteak bildu, jauntto hunen preso eremaiteko.
**SINDA:** Etxe huntan, ez dut eskandalarik nahi.
**GALTZAGORRI:** Ni preso? Zer gaizki eginik?
**ULALI:** Ori, nik, gaizkia gogotik egin nezake zu bezalako mutiko gazte propiarekin. Bainan, xarmaki ikusten baitut ez zirela Suprefetaren semea; ez du balio xapela buruan egon nadien *(xapela kentzean)* Adio ene ostatuaren haunditzea.
**MARTZELINO:** *(harrnairuari hurbilduz)* Nun da harmairu huntako gakoa?
**SENDA:** Gakoa sakelan, sakela zaian, zaia Sendaren soinean eta Sendak gakoa ez eman nahi.
**MARTZELINO:** Eta Senda, kosent gisa, guk preso ezarriko...
**GALTZAGORRI:** Ene xantza! Nahi duzuelarik, prest niz preso joaiteko Sendarekin. Bainan

halere, nahi nuke jakin zer makur egin dutan.

**KIRIKO:** Hortan, mutikoak arrazoin du.

**MARTZELINO:** Zer egiten dugu beraz?

**BLANDINA:** Joka giten kofesategian bezala: lehenik hutsak aitor eta gero penitentzia eman.

**GALTZAGORRI:** Biba zu, Blandine. Zure oseba baino erretor hobea zintaizke.

**ULALI:** Emazteak utziz jujari, hobendunik bezik ez litaike presondegietan.

**MARTZELINO:** Demokrazian bizi baigira, auzia joanen da boza gehiena biltzen duenaren alderat. Tribunalea, hemen berean muntatuko dugu. Zuek, emazteak, mahain hori hementxet ezarriko duzue *(barnearen erdia erakusten du. Bana egiten dute)* Nik mahain burua hartuko dut, president gisa *(jartzen da)* Zu, Kiriko, ene eskoinean *(jartzen da)* Hik, alguazil, hatxemak nahi dukan lekuan xilintxa bat eta ene ezkerrean jar hadi. Hi izanen hiz segeretario *(Antikristo intzirinka ateratzen da)*

**GALTZAGORRI:** Zoin mintzatuko da ene alde?

**MARTZELINO:** Debruak ez du abokat beharrik.

**ULALI:** Bara berriz gizonaren arrazoinamendua... Ez dakizia, populuak libro direlarik, nehork ez dituela debruak errespetatzen?

**BLANDINA:** Debruak ez hu halaxet lotsatzen. Nahiago nuke zerga-biltzaletik zaintzaile bat.

**SENDA:** Mutiko gaizo horren abokat, ni izanen niz.

**ANTIKRISTO:** *(sartzen da pulunpa bat eskuan. Martzelinori emaiten dio)* Ez dut bertzerik hatxeman. Nun ezartzen ahal ginuke dilindan?

**MARTZELINO:** *(brau, pulunpa mahain gainean pausatuz)* Tribunalean gituk hemen eta ez Ezpeletako ferian. Jar-adi hemen. Nik erranak izkiriatuko dituk *(pulunpa joz)* Senda, zezen tokia idek, plazer baduzu... *(Sendak harmairuko borta idekitzen du. Denak ixilik daude. Ulali eta Senda beren buruen apaintzen ari dira. Galtzagorri agertzen da, Suisez bezti. Xapelarekin agur haundi bat egiten du.)*

**BLANDINA:** Debru guziak hau bezain ederrak badira, denbora onik pasatzen ditaike ifernuan.

**ULALI:** Nihaur ere eretikatzeko tirriak hartzen nu.

**KIRIKO:** *(Galtzagori-ri)* Arropa hori soinean emaiteko bekokia baduka? Arropa horiek, eneak dituk.

**SENDA:** Ez jauna; ene amarenak dira.

**BLANDINA:** Emaztea senarrarena baita bere puska guziekin, arropa horiek beraz Kirikorenak dira.

**MARTZELINO:** *(pulunpa joz)*- Xo!... *(Antikristori)* Ixkiria zak: Besta-berriko prosesionea ez delakoan eginen, Suisaren arropa ebatsi du.

**SENDA:** Zer uste duzue Rusian zireztela, holako jukutrietan hartzeko? Zuen demokrazia saindua hori balinbaduzue!

**MARTZELINO:** Egiazko demokraziak manatzen du bozetan pasatzea. Pasatua denak, beti arrazoin du. Pasatua ez denak, ixilik egoiteko peila du bakarrik.

**SENDA:** Egiazko demokraziak manatzen du Martzelino debruetarat igortzea, zuzenaren kontra mintzo delakotz.

**ULALI:** Pataxkan hartzeko orde, galdegin zazue helduden besta-berrietako. Zanga saharrak, gureak ez bezalakoak ditu. Zangasahar ederra bezalakorik ez da kanpotiarren ekar-arazteko.

**MARTZELINO:** *(pulunpa joz)* Xo!... Zu, Ulali, zure senarraren zangasaharrekin akomea zite.

**KIRIKO:** *(Galtzagorri-ri, burlan)* Zer erran ote lezake zure aitak, manera hortan ikusten bazinitu?

**GALTZAGORRI:** Ene aitak?

**MARTZELINO:** Suprefetaren semea manera hortan...

**GALTZAGORRI:** Ni, Suprefetaren semea? Egundaino...

**MARTZELINO:** Nor ateraia du gezur hori?

**ULALI:** Eni, Gilenek errana daut; eta Gileni, Kirikok.

**KIRIKO:** Eni berriz, emazteak, eta emazteari, Blandinak.

**MARTZELINO:** Eta zurl, Blandina?
**BLANDINA:** Xurrupeko Rufinak, Miarritzen errana daut. Bainan ez niz segur huntaz mintzo zela.
**ANTIKRISTO:** Hobenduna, beraz, Blandina da.
**MARTZELINO:** Debrua zirela ere erran duzu.
**GALTZAGORRI:** Ez da egia.
**MARTZELINO:** *(Antikristori)* Eni, hik errana dautak.
**ANTIKRISTO:** Eni berriz, Blandinak.
**MARTZELINO:** Eta zuri, Blandina?
**BLANDINA:** Ez bazen Suprefetaren semea, ez zen debrua bezik izaiten ahal, bere galtza gorri eta sofre usainarekin.
**ULALI:** Ostatuan ere bat utzia zuen.
**KIRIKO:** Gure etxean are ba.
**MARTZELINO:** Hobendunak erran beza zendako duen, debruak bezala, sofre usaina.
**GALTZAGORRI:** Bertzerik ez duelakotz ukaiten ahal. Lacq-eko sofrean ari baita lanean...
**SENDA:** Horietarik ageri da Galtzagorri ez dela ez Suprefetaren semea, ez eta debrua. Aldiz, Blandina gezurtaria da.
**ANTIKRISTO:** Blandina, presondegirat!
**BLANDINA:** Ni preso? Ez duzu deus erraiten, Kiriko, ene alde?
**KIRIKO:** Etxe hunen barnean, nehork ez du Blandina hunkituko.
**SENDA:** Alabainan. Ama faltatuz geroz, Blandina ene aitaren gibeletik dabila. Aita bere aldetik, alargun gelditzeko beldurrarekin, Blandina ele-xurika hasia da.
**ANTIKRISTO:** Hara nolakoak diren apezen ilobak.
**MARTZELINO:** Huts haundia, Blandina, emazte ezkondu baten lekua hartzea.
**BLANDINA:** Huts haundiagoa oraino, herriko meraren lekua hartzea. Ikusiko dugu, Gilen gibelerat agertuko delarik, zer pasatuko den.
**ANTIKRISTO:** Hobe dugu auzia hortan bururatzea. Bertzenaz, ixtantean, jujeak hobendun izanen dira eta hobendunak bildotxa bezala garbi. Galdegiten bazinute berari nor den?
**MARTZELINO:** Egia, to, hori. Nundik eta nolaz jina zira hunat?
**GALTZAGORRI:** Baionan bizi niz, bainan Donazahartarra niz.
**KIRIKO:** Donazaharre, jende ardura asarre.
**MARTZELINO:** Nola deitzen zira.
**GALTZAGORRI:** Krixpin de Agerreberri.
**ULALI:** Ene ama ere Agerrezaharretarik zen.
**GALTZAGORRI:** Nindagon ba ez ote zinuen debruarekin deus ikustekorik) Saltzen duzun arnoak ageri du ifernutik ateraia dela.
**ULALI:** Saindu berri, ez haizela izi. Hemendik aintzina, Lourdeko ura zerbitzatuko daiat.
**MARTZELINO:** *(pulunpa joz)* Xo!... Segi dezagun gure saila.
**BLANDINA:** Dongolon, dingilin, dangana; nik beia mana, ta beiak bere buztana.
**GALTZAGORRI:** Orai, nik eginen ditut galdeak.
**MARTZELINO:** Zuk?
**GALTZAGORRI:** Ba,nik. Alguazilak dion bezala, hobendunak, ziek zirezte eta ez ni.
**KIRIKO:** Ha! ha! Eta ene emaztea nork ebatsi du?
**BLANDINA:** Eta ni, miserablea, nork ezarri nu osebarik gabe?
**MARTZELINO:** Herria, noren gatik da merarik gabe?
**GALTZAGORRI:** *(goraki)* Jaun andereak, ene bitartez, Jainkoak kendu ditu poxulutik. Orai, zeru-lurrak inarrosten ditutzue jakiteko nun diren. Zuekin zirelarik, gaxtakeria zituten bakarrik gogoan heien alderat.
**MARTZELINO:** Gilenek ez du nitaz pleñitzekorik.
**GALTZAGORRI:** Beti gasailan ari zinezten biak. Hartaz burlatzen zinen. Haren enterramendurat, burua ilun eta bihotza arin joanen zira.
**KIRIKO:** Nik Sindarekin sofritu ditudanak sofritu eta holakorik aditu behar nuela

Txiranberroenean, hura da kapatas eta ni esku-piltzar.

**GALTZAGORRI:** Hura baitzen etxekandere, uzten zinuen nahi zuenaren egiterat. Baina alargun izaiteko esperantzan eta Txiranberroenearen nagusi. Gizon batek emazteari egiten ahal duen afruntu haundiena, giderak haren eskuetan uztea...

**KIRIKO:** Guk ez dugu idaia aintzinatu horietarik nahi. Eskual Herrian, zaiek ez balute manatu, denak buluziak izanen ginen den tenorean, eta Indioak bezala lumaz bezti.

**BLANDINA:** Nik, ene gostuz, badakit ez dela munduan emazterik zaia beltz luze bati mana dezakenik.

**GALTZAGORRI:** Ikusten duzu, Blandina, leporaino asea zinela zure osebaz! Gaixo Lakaberats apeza! Biligarroa izan balitz eta zu ihiztari, aspaldi perdiun zaflako bat ukana izanen zuen nik dakitan lekuan. Haren eskupetik atera orduko, bertze norbait eskupean izanen zinuen gogoan. Eman dezagun, Txiranberroeneko etxeka-ndere izaiteko esperantzan, Kiriko izanen zela...

**BLANDINA:** Ukan ditudan ezkontzeko nahikunde guzientzat banitu mila libera, aspaldi aberats puxant izanen nintzan. Berrogoi urte huntan baztertzen ditut nahikunde horiek. Amodiotan, beti bankerrut egin dut. Kontsolatzeko, ez dezaket ere erran: irri ta farra, ta azkenean astoarekin ezkondu beharra.

**ULALI:** Nitaz, Galtzagorri, baduzu deus erraitekorik?

**GALTZAGORRI:** Gure biziaren binerra, zu zira. Bataio, komunione, eztei ala enterramendu, Ulali beti hor da, herriko mozkorren iturburu. Mutuari mintzoa, okerrari hiru bixta, mainguari dantzatzeko ahala emaiten dituzu. Zure boterea negurri gabea da. Zuri esker, putruna jokari da, urguluntzia lau-hatzez lurrerat dabila; gizon barea, amodiozko su izigarri batek harturik dabila.

**ULALI:** Ez du koka-kola-ren xurgatzeak emaiten holako ondorik.

**ANTIKRISTO:** Nitaz berriz, zer diozu?

**GALTZAGORRI:** Frantses zirelakotz, zutaz ez dut deus erranen. Bertzenaz, Enbatatiarra nizala barreatuko duzu fama. Ororen buru, Eskual Herri guziko giderrak, zuek dituzue. Gizon, emazte, apez eta haur, denak zuen meneko dira. Alabainan, zuek zirezte prefet, mera, apezpiku, jeneral eta guarda. Agurrik hoberenak, zuri Quintiliano kanpotiarra!

**ANTIKRISTO:** *(burukoa kenduz)* Milesker, Agerreberriko Krixpin. Badakizu beti laguntzen ditugula behardunak.

**SENDA:** Tirikitikitauki, axeria oiloen predikari.

**MARTZELINO:** Gure zaurien sendatzeko erremediorik ezagutzen duzu?

**GALTZAGORRI:** Ba, ura.

**ANTIKRISTO:** *(ez da kontent)* Pua! Ura! Erremedio kiretsa eta hitsa.

**ULALI:** Ene ostatua errekaratu nahi duzu?

**GALTZAGORRI:** Ez niz edateko uraz mintzo. Bertze ur batez mintzo niz. Ur zilotan eta aintziretan pausuan dagon uraz, edo erreketan-xurxurikan dabilanaz. Ixiltasunean, hari so, gure baitan sartzen gira. Gainerat, arraintzariak bagira, zer loria! Zuhurtziaren gakoa, arraintza. Bakearen iturburua, arraintza. Arraintzari batek, beti maite du bere lagun arraintzaria. Gure deputatu eta herri-gizonak, politikan artzeko orde, arraintzari lotzen balira, zer bakea munduan! Zer loria! Ez duzue nahi Sinda, jaun erretora eta jaun mera gibelerat jin diten? Jinen dira. Bainan Errekazuloko urari esker bertzelakatuak.

**MARTZELINO:** Bon, aski zitzi-musika. Zure palamastrika guziekin, gu nundik nahas ari zira, hemendik eskapatzeko. Ez bainiz ordia ni atzo sortu xoxoa! Zegituko dugu hasi saila. Antikristo, lot-adi berriz lumari. Bon, zoin egunez gira?

**ANTIKRISTO:** Apirilaren lehenean. San Benantzi, Estebak, Irene, Teodoro...

**MARTZELINO:** Ixkiria zak: Apirilaren lehen egunean, Txiranberroenean bildurik...

**KIRIKO:** Uste duzu egun hau ontsa hautatua dela? Nehorek ez zitu sinetsiko...

**ULALI:** Arraintzan, apirilaren lehenean... hé...!

**GALTZAGORRI:** Urte guzian apirilaren lehena izaiten ahal balitz! Biziko gauza nekosak

bazterturik, gizonak kalte-gabeko burukaldi batzuetan goxa diten!

**BLANDINA:** *(Antikristori)* Errazu, zure konbertitzea, ez da dudarik gabe apirileko arrain bat?

**ANTIKRISTO:** Ene fedea ezetz, Blandina. Alde hortarik, ez ginuke trabarik, nahi bazinu enekin ezkondu.

**BLANDINA:** Zu bide onean atxikitzekotan, indar bat egin nezake...

**GALTZAGORRI:** Erretora ez bazauku fite heldu gibelerat, andereño hau bizpahiru senarren emazte izanen dugu...

*(Urrunerat aditzen da kantu bat. Sinda, Lakaberats eta Gilen kantuz heldu dira)*

**SENDA:** *(bortarat joanez)* Beha nor diren!

**KIRIKO:** *(burua apal)* Sinda gibelerat heldu!

**BLANDINA:** *(tristeki)* Berriz ere erretor iloba!

**MARTZELINO:** *(tristeki)* Berriz ere Gilen mera eta ni kontseiluko!

*(Zolatik agertzen dira Sinda, Erretora eta Gilen, eskuz-esku, arraintzako tresnekin)*

**SENDA:** *(ama besarkatuz)* Amatxu!

**KIRIKO:** *(Sindari)* Egun guzia etxetik kanpo, ez zirea ahalgetzen?

**SINDA:** *(Kirikori)* Kiriko maitea, egun hortan ikasi dut zure maitatzen merezi duzun bezala *(besarkatzen du)*

**ANTIKRISTO:** *(garde à vous)* Zure zerbitzuko jaun mera.

**MARTZELINO:** *(Gileni)* Herritik egun bat kanpo egoitea, pasatzen ditugun oren lazgarrtetan, uste duzu ontsa dela?

**GILEN:** Erekazulon, gogoetak funtsez egin ditut, Martzelino. Zahartzen ari niz. Sindarekin, pentsatu dugu, bihartik goiti, ene kargua zuri utziko dutala.

**ANTIKRISTO:** *(Martzelinori, garde à vous)* Zure zerbitzuko, jaun mera.

**ERRETORA:** *(predikuan bezala)* Giristino maiteak...

**BLANDINA:** Egun oso bat falta egon eta, prediku egiteko bekokia baduzu? Penitentzia, guk emanen dauzuegu!

**LAKABERATS:** Errekazulon pasatu dutan denborak ene begiak ideki ditu. Zuetarik hurbilago senditzen dut orai ene burua. Eginen dutan lehen lana, orai, ene ilobari gizon-gai baten hautatzea.

**ANTIKRISTO:** *(garde à vous)* Zure zerbitzuko, jaun erretora!

**LAKABERATS:** Zu? Antikristo baten emazte, ene iloba?

**BLANDINA:** *(Antikristo eskutik hartuz)* Denbora laburra barne, zer nahi kanbiamendu izan da bazterretan. Zu egin ziren bezala, hau ere konbertitu da. Ez du gehiago Antikristo izena, bainan Quintiliano. Hainbertze xirio bada elizan, beti lanjerrean baigira. Su-hiltzale bat baino senar hoberik, hatxemanen duzu zuk erretor iloba batentzat?

**SINDA:** Batzu tzarretik onerat; bertze batzu onetik hoberenerat. Hauxe da kanbiamendiak!

**SENDA:** Nik ere bertzeak bezala egin nahi izan dut...

**KIRIKO:** Zer debru egin duzu, zuk berriz?

**SENDA:** Nexkato gazte egoiteaz aserik, fitsexko ezkontzeko xedea hartu dut.

**ULALI:** A, gaixoa! Zu ahatik onetik tzarrerat ari zira lerratzen.

**SINDA:** Norekin ezkondu gogo duzu, plazer baduzu?

**SINDA:** Galtzagorrirekin.

**SINDA:** *(Galtzagorri-ri)* Suisaren arropa hartzea ez zauzu aski. Orai, alaba behar dautazu ebatsi?

**KIRIKO:** *(Senda-ri)* Orai berriz debruaren aitazun behar dutala nik... Zer mila sorgin egin dut ene alabari, gisa hortan saristatua izaiteko?

**GALTZAGORRI:** Debru ttipiz beteko delarik Txiranberroenea, zure zorionak ez du parerik ukanen.

**LAKABERATS:** Zuk, Galtzagorri, urrezko arrainen mirakulia egin duzu. Jainkoak nor nahi bitarteko hartzen du, gure sendatzeko behar diren mirakulien egiteko. Gorputzaren sendatzea baino baliosago baita zentzu-adimenduen sanotzea eta

sendatzea. Munduaren edozoin xokoetan —izan dadien Lourden ala Errekazulon— bada harpe bat gure arimari osagarria emaiten duen ur onaz betea. Bainan, hara. Gu ardura itsu. Bidearen erakusteko, Galtzagorriak hatxeman behar. Guk zorion hori ukan dugulakotz, plazerrekin ezkonduko dut, hemen dugun hau Sendarekin.

**BLANDINA:** Ni ez nuzu ahanzten, araiz?

**LAKABERATS:** Ez, gaixo Blandina, ez. Alta, aitortu behar dauzut; ez zaut bihotz-altxagarri zure senar-gaia kaskoina izatea. Baina, nork daki? Behar bada, Galtzagorrik bertze mirakulu bat eginen du eta kaskoin batetarik, eskualdun bat aterako dauku.

**MARTZELINO:** Zuen bizian erranen duzuen bai-etarik inportantena, ene ainzinean erranen duzue. Hiru koloretako xarpa, zuen esposatzeko estrenatuko dut.

**SINDA:** *(Ikusliarer buru)* Txiranberroenearen izenean, denak gomitatzen zituztet ezteietarat. Gisan den bezala, Ulaliren etxean izanen da apairia.

**ULALI:** *(ikusliarer buruz)* Galtzagorrik nahi duena erranik ere, ez dauzuet kola-kola emanen edaterat. Bainan arno onetik, koñaka eta xanpaña hoberenetik. Bihotz guzien ontzeko, izanen dira ere Errekazuleko arrainetarik...

Oihala

La Candelaria, 1966